

2006

EAEko

**EMAKUMEEN ETA GIZONEN
BERDINTASUNERAKO IV.PLANA**

**BOTERE PUBLIKOEN ALORREAN
GAUZATZEARI BURUZKO
JARDUERA TXOSTENA**



eman ta zabal zazu



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea

*EAEko EMAKUMEEN ETA GIZONEN
BERDINTASUNERAKO IV. PLANA BOTERE
PUBLIKOEN ALORREAN GAUZATZEARI BURUZKO
JARDUERA-TXOSTENA VIII. LEGEALDIKO
JARRAIBIDEAK
(2006. URTEA)*

Ikertzaile nagusia: Ainara Arnoso Martínez doktorea

Koordinatzailea: Maribel Pizarro Pacheco

Laura Gómez Hernández

Idoia Larrañaga Hernández

Aitor Aritzeta Galán doktorea

Gizarte Psikologia eta

Portaera Zientzien Metodologia Saila

Donostia, 2007ko ekaina

AURKIBIDEA

Orrialdea

SARRERA	4
 I. EAEKO EMAKUMEEN ETA GIZONEN BERDINTASUNERAKO IV. PLANAREN DESKRIBAPENA	
1. HELBURU OROKORRAK	7
2. PLANA LANTZEKO METODOLOGIA	7
3. PLANAREN EGITURA	9
4. IV. PLANA EGITEKO ARDURA DUTEN ERAKUNDEAK	11
 II. EBALUAZIO-METODOLOGIA	
1. EBALUAZIOAREN HELBURUAK	14
2. EBALUAZIO-MOTA	14
3. INFORMAZIOA BILTZEKO ERABILITAKO TRESNAK	16
4. LANDA-LANAREN PROZESUA	17
 III. ERAKUNDE PUBLIKOEN PARTE-HARTZEA EBALUAZIOAN	
1. ERAKUNDE PUBLIKOEN PARTE-HARTZEA EBALUAZIOAN	19
 IV. IV. PLANAREN EBALUAZIOAN LORTUTAKO EMAITZAK	
1. EGINDAKO JARDUEREN EZAUGARRI NAGUSIAK	26
2. ARDATZ ESTRATEGIKOETAN EGINDAKO JARDUERAK AZTERTZEA	34
3. IV. PLANA NORAINO GAUZATU DEN	41
4. IV. PLANA EZARTZEKO HARTUTAKO NEURRIAK	45
4.1. Berdintasun-politikak bultzatu eta koordinatzeko neurriak	45
4.2. Programazioa eta Ebaluazioa.....	49
5. ERAKUNDE PUBLIKOETAN GENERO-IKUSPEGIA TXERTATZEN LAGUNTZEKO EGINDAKO JARDUERAK	55
6. EMAKUMEEN ETA GIZONEN BERDINTASUNA LORTZEKO SEKTORE-POLITIKAK ETA ZEHARKAKO POLITIKAK	73
 V. EMAITZEN LABURPENA	96
 ERANSKINAK	

SARRERA

Euskal Autonomia Erkidegoko Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako IV. Plana Gobernu Kontseiluak onartu zuen, 2006ko irailaren 26an egindako saioan. Saio horretan bertan, Gobernu Kontseiluak Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundeari eskatu zion, batetik, aipatutako Plana modu orokorrean bultzatzea eta koordina zezala; eta, bestetik, EAEko herri-administrazioek gauzatutako berdintasun-neurri eta -ekimenei zegokien jarraipen eta ebaluatze orokorra egin zezala.

Betebehar horri jarraituz, eta Euskal Herriko Unibertsitatearekin sinatutako hitzarmenarekin bat, Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundeak EHUko Psikologia Fakultateko Gizarte Psikologia eta Portaera Zientzien Metodologia Sailari eskatu zion 2006ko ekitaldiko IV. Planaren ebaluazioa egin zezala. Ebaluazio horretan lortutako emaitzak bost zatitan egituratu dira:

I. zatian, IV. Planaren deskribapena egin da, helburuak, lantzeko metodologia, egitura eta planaren gauzatzean parte hartzen duten erakundeak aintzat hartuta.

II. zatian, erabilitako ebaluazio-metodologiari lotutako alderdiak jaso dira: helburuak, ebaluazio-mota, datuak biltzeko baliatutako tresnak, eta landa-laneko prozesua.

III. zatian bildu diren datuekin, ebaluazioan parte hartu duten erakunde publikoak ezagutuko dira. Halaber, ebaluazioaren fase horri (informazioa biltzea) lotutako gai esanguratsuak azalduko dira, hala nola: ezarritako epeak betetzea, galdeketen erantzunen kalitatea eta atzemandako zailtasunak.

IV. zatia emaitzei dagokie, eta sei ataletan egituratu da: botere publikoek gauzatutako jardueren ezaugarri orokorrak; ardatz estrategikoetan egindako jardueren analisia; erdietsitako gauzatze-maila; IV. Plana ezartzeko baliatutako neurriak; erakunde publikoek beren politiketan genero-ikuspegia txerta dezaten egindako jarduerak; botere publikoek berdintasunaren alorrean aurrera eramandako arloko eta zeharkako politikak.

V. zatian, aipatutako txostenaren zati bakoitzaren emaitza aipagarrienak jaso dira, administrazioaren joerak ezagutarazteko eta berdintasun politikak gauzatzeko baliabideak azaltzeko asmoz.

I. EAEko EMAKUMEEN ETA GIZONEN BERDINTASUNERAKO IV. PLANAREN DESKRIBAPENA

1. HELBURU OROKORRAK

IV. Plana aurreko hiru planen bilakaeraren eta aurrerapenen emaitza dela jotzen da. Halaber, 2005eko otsailaren 18ko 4/2005 Legea (Emakumeen eta gizonen berdintasunerakoa) onartzearekin bat sortutako aukerei erantzun nahi die.

Berdintasunari dagokionez VIII. legealdian EAEko botere publikoen jarduna bideratu behar duten jarraibideekin osatu da IV. Plana, eta honako oinarritzko helburu hauek lortzeko tresna izan nahi du:

- Legearen artikulua bete, garatu eta ezar daitezzen sustatzea.
- Politikak bideratzen zehaztasun handiagoa lortzeko jauzi kualitatiboa egitea, berdintasunari modu iraunkor eta biderkatzailean eragingo dioten hainbat helburu lehenetsita, baldin eta erakunde guztiek helburu horiei modu bateratuan ekiten badiete.
- Helburu horiek ezartzeko ardura dutenen jarduera-eremuak koherenteagoak eta argiagoak izatea. Pertsona horiek lan ezin hobea egin dute urte askotan, eta, haien esperientziari eta jakintzari esker, erronka berriei aurre egiteko moduan izango gara.
- Kudeaketa- eta koordinazio-egituren eta sistemen garapena eta eraginkortasuna areagotzea; orain arte, egitura eta sistema horiek funtsezko eginkizuna izan dute, eta, gaur egun, erronka garrantzitsuei aurre egin behar diete.
- Berdintasun-politika publikoak izaten ari diren eragina agerian uztea, hasierako gizarte-egoerak neurtuta eta planaren indarraldian izan duten bilakaera aztertuta.

2. PLANA LANTZEKO METODOLOGIA

Aurreko berdintasun-planen antzera, IV. Plana lantzeko metodologian parte hartu dute, batetik, hainbat diziplinatan diharduten berdintasun-alorreko adituek eta, bestetik, askotariko gizarte-arlo eta erakundeetako pertsonak.

Prozesua bi etapa berezietan zatitu zen. Lehenengoan, planak izan behar zuen egitura berria definitu zen, Legea egokitze aldera. Bigarreanean, berriz, planaren eduki zehatzak definitu ziren.

LEHENENGO ETAPA (Egitura definitzea)

- Diziplina anitzeko taldea osatu zen berdintasunaren inguruko jakintza zuen hainbat eremutako (zuzenbidea, antolaketa eta kudeaketa, antropologia, soziologia eta psikologia) jendearekin.
- Aholku Kontseilua sortu zen, eta aurreko berdintasun-planen ahulezi eta indarguneen lehen diagnostikoa egin zuen, baita IV. Plana lantzearen nahiz Legearen ondorioz sortutako mehatxu eta aukeren diagnostikoa ere.
- Dokumentazio garrantzitsua berrikusi eta aztertu zen (berdintasunari buruzko legedia; Estatuko eta Autonomia Erkidegoetako berdintasun-politikei buruzko materialak; EAEko berdintasun-planak; Estatuko Administrazio Orokorreko urteko programazioak; eta III. EEEPPren ebaluazioak.
- Elkarrizketa sakonak egin ziren adituekin, plan berriak bete beharreko premien inguruko ekarpenak eta, batez ere, planaren egiturak bete behar zituen ezaugarriak zehazteko moduaren inguruko ekarpenak egin zitzaizten.
- Bi eztabaida-talde dinamizatu ziren, bat EEEPPren eta Legearen arteko integrazioari buruzkoa; eta, bestea, IV. EEEPP kudeatzeri eta ebaluatzeari buruzkoa.

Lan horren ondoren, proposamena osatu, eta Aholku Batzordeari bidali zitzaion, ekarpen eta hobekuntzak egin zitzaizten. Dokumentua, ekarpenekin, berriro aurkeztu zitzaion Aholku Batzordeari, onar zezan.

BIGARREN ETAPA (Edukiak definitzea)

- Taldea osatu zen, berdintasun-politiken inguruko jakintza zuen jendearekin.
- Oinarrizko hiru material hauek aztertu ziren: 4/2005 Legea; EAEko Emakumeentzako Ekintza Positiboko aurreko Planak (EEEEPP), eta beste berdintasun-plan batzuk. Horietatik abiatuta, IV. Planaren lehen zirriborroa idatzi zen.
- Elkarrizketa sakonak egin zitzaizkien ordezkari garrantzitsuei (gizarte-eragileak eta erakundeetako ordezkariak), Planak aurreikusten zituen arlo guztietan ekarpenak egin zitzaizten. Informazio hori zirriborroa berriz idazteko baliatu zen, eta Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Sailen arteko Batzordeari aurkeztu zitzaion, azter zezan.

- IV. Planeko arlo guztietako helburu eta ekintzen egingarritasuna eta lehentasun-maila balioesten laguntzeko fitxa batzuk bidali ziren Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundearen Zuzendaritza Kontseilura eta Batzorde Aholku-emailerara. Jarduera horren helburua zera zen: aurreko azterketa osatzea, helburu eta ekintzen ikuspegi zabalagoa eta zenbakarriagoa lortzea eta erantzukizunak zehaztea.
- Fitxen bidez jasotako informazioarekin, bigarren zirriborroa idatzi zen, eta erakundeetako ordezkariak eta gizarte-eragile parte-hartzaileak osatutako lan taldean aztertu zen.
- Kontsulta publikoa egin, eta ekarpenak txertatu ziren.

Azkenik, Emakunderen Zuzendaritza Batzordeak eta Gobernu Kontseiluak Euskal Autonomia Erkidegoko Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako IV. Plana onartu zuten.

3. PLANAREN EGITURA

Plana bi elementu egituratzaileraren arabera antolatuta dago:

- Lau **Ardatz**, berdintasunaren alorreko esku-hartzearen euskarri nagusiak direnak (*Mainstreaminga*, Jabekuntza eta gizartean eta politikan parte hartzea, lana eta familia bateratzea eta erantzukizunak banatzea eta Emakumeen aurkako indarkeria).
- Sei **Arlo**, esku-hartze horiek diseinatzeko, ezartzeko eta gauzatzeko erakunde-eremu nagusiak egituratzen dituztenak (Kultura, Hezkuntza, Lana, Gizarteratzea, Osasuna, eta Hirigintza, Garraio Publikoa eta Ingurumena). Halaber, badago Berdintasunerako Zerbitzu Orokorren Arloa, erakundeek berdintasun-politikak garatzeko oinarrizkoak diren zerbitzuak definitzen laguntzeko asmoa duena (administrazioaren barruan baldintza egokiak sortzea; eta gizarte-sarearentzako ekintza zuzenak egitea, berdintasun-politiken inguruko ebaluazioan, hausnarketan eta horien ezartze-prozesuan duen interes maila, jakintza, inplikazioa eta parte-hartzea areagotze aldera).

Era berean, arloak **Programa** eta **Helburuen** arabera antolatuta daude. Programak jarduera-eremuei dagozkie, eta arlo bakoitzean berdintasun-politiken ardatz estrategikoak zehazteko modua definitzen dute. Berdintasunerako Legetik bertatik eta arlo bakoitzeko premien diagnostikotik sortzen dira. Programak, bestalde, helburuez osatuta daude, eta aldatu nahi den gizarte-errealitatea definitzen dute. Egin beharrekoa lehenesteko eta lortu nahi dena zehazteko eginkizuna betetzen dute.

Halaber, esku hartzeko eredu edo proposamen gisa, eta plangintzak osatzeko lan teknikoaren lagungarri, beste bi elementu gehitu dira IV. Planean: **Estrategiak** eta **Ekintzak**. Estrategiek helburua lortzeko gara daitekeen lan-prozesu egoki bat eta abiapuntu bat deskribatzen dituzte. Ekintzak, berriz, estrategiak garatzeko proposamen zehatzak dira, eta administrazioak eskura dituen esku-hartze tresnen arabera sailkatzen dira: jakintza sortzea; sentsibilizazioa, informazioa, eta jendarteratzea; prestakuntza; baliabideak eta zerbitzuak sortzea eta egokitzea; arauak sortzea eta egokitzea; eta jarraipen-mekanismoak sortzea eta egokitzea.

IV. Planak gomendatutako ekintzei dagokienez, aipatu beharra dago Planean jasota ez zeuden 27 jarduera atzeman direla erakunde publikoetan. Hala, 27 ekintza "berri" gehitu zaizkio Planari (ikus eranskina).

Plana ezartzeko neurriak ere aurreikusi dira. Neurri horiek bultzatzeko eta koordinatzeko egiturekin eta kudeaketa-sistemekin dute zerikusia.

Bultzatzeko eta koordinatzeko egiturei dagokienez, zenbait kasutan, 4/2005 Legean xedatua dago egitura horiek sortzea; halaber, egitura horiek zehaztea, garatzea eta indartzea dira IV. Planaren indarraldian lortu beharreko helburuak. Erakundeen barruan, erakundeen artean eta gizartean ezarri beharreko egiturak dira.

Kudeaketa-Sistemei dagokionez, berriz, programazioa (4/2005 Legeko 15. artikuluan jaso da) eta ebaluazioa dira proposatutako mekanismo nagusiak. Planean, zehazki, eraginaren ebaluazioa (arloetako adierazleen bilakaera aztertuta) eta betetze-mailaren edo emaitzen ebaluazioa (helburuak betetzeko erakundeek egindako jarduerak aztertuko dira, baita sorturiko koordinazio-egitura eta -dinamikak ere) jaso dira. Txosten hau, hain zuzen, azken ebaluazio mota horri dagokio.

4. **IV. PLANA EGITEKO ARDURA DUTEN ERAKUNDEAK**

Berdintasunerako Plan osoan aipatzen denarekin bat, botere publiko orori dagokio plan hori gauzatzearen gaineko erantzukizuna. Erantzukizun hori botere publiko bakoitzaren jardueraren eta eskumenen araberakoa izango da.

ADMINISTRAZIO OROKORRA

- **Gobernuko sailak:** Lehendakaritza; Lehendakariordetza; Ogasun eta Herri Administrazio Saila; Justizia, Enplegu eta Gizarte Segurantzza Saila; Barne Saila; Industria, Merkataritza eta Turismo Saila; Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila; Osasun Saila; Kultura Saila; Ingurumen eta Lurralde Antolamendu Saila; Etxebizitza eta Gizarte Gaietarako Saila; Garraio eta Herri Lan Saila; eta Nekazaritza eta Arrantza Saila.

- **Erakunde autonomoak:** Emakunde; Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundea (IVAP/HAEE); Euskal Estatistika Erakundea (EUSTAT); Lanerako Segurtasun eta Osasunerako Euskal Erakundea (Osalan); Euskadiko Poliziaren Ikastegia; Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Defendatzailea; Helduen Alfabetatze Berreuskalduntzerako Erakundea (HABE) eta Soin Hezkuntzako Euskal Erakundea (SHEE/IVEF).

- **Erakunde eta sozietate publikoak:** Osakidetza; Industriaren Sustapen eta Eraldaketarako Baltzua (SPRI); Energiaren Euskal Erakundea; EITB; Eusko Jaurlaritzaren Informatika Elkarte (EJIE SA); Nekazaritza Ikerketa eta Garapenerako Euskal Erakundea (NEIKER, SA); Bilboko Metrorako Ingeniaritza SA (IMEBISA); Euskadiko Orkestra Sinfonikoa; Ingurumen Jarduketarako Sozietate Publikoa (IHOBE); Euskadiko Etxebizitza eta Lurra SA (VISESA); Euskotren; eta Egailan.

- **Beste erakunde batzuk:** Lan Harremanetarako Kontseilua eta Euskal Herriko Unibertsitatea.

- **ARARTEKOA**

FORU-ADMINISTRAZIOA: Arabako Foru Aldundia, Bizkaiko Foru Aldundia eta Gipuzkoako Foru Aldundia.

TOKI-ADMINISTRAZIOA: Euskadiko Udalen Elkartea (EUDEL), Arabako udalak, Bizkaiko udalak eta Gipuzkoako udalak.

II. EBALUAZIOAREN METODOLOGIA

Txostenaren bigarren zatian, ebaluazioaren alderdi metodologikoak azertu dira: helburuak, ebaluazio motak, datuak biltzeko baliatu diren teknikak eta egindako landa-lana.

1. EBALUAZIOAREN HELBURUAK

Helburu orokorra zera da: botere publikoek administrazioaren hiru mailetan (orokorra, eta foru- eta toki-administrazioa) IV. Planaren harira gauzatu dituzten urteko jarduerak ezagutzea.

Honako hauek dira helburu espezifikokoak:

- Ardatz estrategikoak, arloak, programak eta proposatutako helburuak noraino gauzatu diren jakitea.
- EAEko herri-administrazioetako erakundeek Plana gauzatzeko duten erantzukizuna noraino bete duten azaltzea.
- IV. Planean jasotako helburuen gauzatzeko-maila aztertzea.
- Jardueren multzoa balioztatzea, erakunde publikoen urteko plangintzak bideratze aldera.

2. EBALUAZIO-MOTA

Ebaluatzeko lau tipologia klasikoei jarraituz (funtzioak, unea, ebaluazioaz arduratzen den taldea eta ebaluatu behar den objektuaren edukia edo fasea), honako hauek dira aurreikusitako ebaluazio-motak:

- ***Funtzioak kontuan hartuta:*** funtsean, ebaluazio *sumatiboa* da. Izan ere, Planaren emaitzei edo eraginei buruz bildutako informazioa Legebiltzarrari kontuak emateko, Plana indarrean dagoen urte bakoitzeko laburpena egiteko eta hurrengo Planaren diseinuaren inguruko erabakiak hartzeko erabiliko da. Dena den, Planak ere badu *nolabaiteko izaera osatzailea*. Hain zuzen, urtero egindako ebaluazioek erakunde publikoen urteko plangintzak bidera ditzakete, eta, aldi berean, EAEko herri-administrazioek ebaluazioan duten konpromiso-maila areagotzeko estrategiak diseinatzeko bide eman dezakete.

- ***Ebaluazioa egiteko unea kontuan hartuta:*** *post-facto* ebaluazioa da, IV. Planaren indarraldia hasita dagoenean egin delako.
- ***Ebaluazioaren arduradun-taldearen jatorria edo osaera kontuan hartuta:*** *kanpo-ebaluazioa* da, EHUko Gizarte Psikologia eta Portaera Zientzien Metodologia Saileko ikertzaile-talde batek egin.
- ***Ebaluatzen den politikaren edukia edo fasea kontuan hartuta:***
 - a) *Inplementazioaren ebaluazioa* egin da, IV. Planaren gauzatzearen jarraipena eginez. Horretarako, botere publikoek egindako jardueren inguruko informazioa bildu da, hain zuzen ere, ardatz estrategikoei, arloei, programei, IV. Planean jasotako helburuei, eta aurreikusitako ekintzei (gomendatutakoak barne) dagokiena. Ebaluazio-mota horrekin, honako funtsezko galdera hauei erantzun nahi zaie:
 - Zein da Planaren gauzatze-maila?
 - Zer neurri mota abiarazi dituzte erakunde publikoek IV. Plana ezartze aldera?
 - Zer jarduera gauzatu da erakundeari genero-ikuspegia integratzen laguntze aldera?
 - Berdintasuneko zer jarduera sektorial mota jarri da abian?
 - Zer neurritan ari gara aurrera egiten genero-ikuspegian?
 - b) *Helburuak ebaluatzeari* dagokionez, aurreikusi da IV. Planean jasotako helburu- eta eragin-adierazleei dagozkien datuen bilketa 2007an hasiko dela. Halaber, bilketa 2008 eta 2009 artean osatuko da; eta, hala, ebaluazioaren emaitzak IV. Planari buruzko osoko txostenean aurkeztuko dira. Emaitza horiek kontu handiarekin hartu beharko dira aintzat, aplikatutako diseinua ez-esperimentala baita. Dena den, diseinu hori da mota horretako planei aplikatu diezaiekegun bakarra, beren ezaugarriak direla medio (hainbat helburu, esku hartzeko hainbat arlo, hainbat xede-talde, implementazioaren arduradun diren hainbat erakunde). Hala, diseinu mota horiek ez dute inferentzia kausalak formulatzeko biderik ematen. Hots, ezin da ziurtasun osoz esan lortutako emaitzak Planaren gauzatzeari dagozkionik.

3. INFORMAZIOA BILTZEKO ERABILITAKO TRESNAK

Datuak biltzeko, honako tresna hauek baliatu dira, aipatutako ebaluazio motak gauzatzeko:

– Planaren *inplementazioa ebaluatzea*

Datuak biltzeko, galdeketa baliatu da. Zehazki, sei galdeketa diseinatu dira (ikus eranskina), IV. Planean aipatutako esku-hartze tresna bakoitzerako bat:

- Jakintza sortzea
- Sentsibilizazioa, informazioa eta jendarteratzea
- Prestakuntza
- Baliabideak sortzea eta egokitzea
- Arauak sortzea eta egokitzea
- Jarraipen-mekanismoak sortzea eta egokitzea.

Aurreko planean diseinatutako eta erabilitako ebaluazio-sistema eta metodologia baliatu dira, uste baita EEEPPn ezaugarrietarako eta azaltzen diren ebaluazio-helburuetarako egokienak direla. Zehazki, Planean jasotako ekintzak kategoriatan sailkatu ziren, zegozkion ebaluazio-adierazleak ezarri ziren, eta, gero, zazpi galdeketa diseinatu ziren (ezarritako kategorია bakoitzerako bat). Zazpi galdeketa horiek bi zatiz osatuta daude: bat komuna guztientzat (lehenengo hamar galderak); eta bestea kategoría bakoitzerako espezifikoa (adierazle espezifikoen arabera diseinatua).

– Planaren *helburuak ebaluatzea*

Datu-baseak aztertu eta ikerketa espezifikoak egingo dira. Hala, IV. Planean azaldutako programa bakoitzean, zehaztutako helburu- eta eragin-adierazleei buruzko informazioa bilduko da.

4. LANDA-LANAREN PROZESUA

2007ko urtarrilean, gutuna bidali zitzaien EAEko administrazioaren hiru mailetako (orokorra, eta foru- eta toki-administrazioa) erakunde publiko guztiei eta beste erakunde publiko batzuetan erantzukizun politiko gorena zuten pertsonei, baita, hala zegoekionean, aukeraberdintasunaren arloko teknikariei ere. Horrekin, IV. Planaren ebaluazio-prozesuaren berri eman nahi zitzaien. Aldi berean, aurreko atalean aipatutako sei galdeketak bidali ziren, eta, halaber, horiek betetzeko argibideak zituen dokumentu bat. Galdeketak paperean bidali ziren, baina euskarri informatikoan egiteko aukera ere bazegoen.

Aipatutako gutunean azaldu zitzaien ebaluazioaren inguruko jardunaldi informatiboak antolatu zirela Bilbon, Donostian eta Gasteizen. Halaber, telefono edo Internet bidez informazioa eta laguntza teknikoa jasotzeko aukera zegoela aipatzen zen.

Aurreikusi zen erakunde publikoek hilabeteko epean, gutxi gorabehera, bidaliko zituztela galdeketak.

III. ERAKUNDE PUBLIKOEN PARTE-HARTZEA EBALUAZIOAN

III. zatian bildu diren datuekin, ebaluazioan parte hartu duten erakunde publikoak ezagutuko dira. Halaber, ebaluazioaren fase horri (informazioa biltzea) lotutako gai esanguratsuak azalduko dira, hala nola: ezarritako epeak betetzea, galdeketen erantzunen kalitatea, eta atzemandako zailtasunak.

1. ERAKUNDE PUBLIKOEN PARTE-HARTZEA EBALUAZIOAN

Ondoko taulan, EAEko herri-administrazioen hiru mailetako (administrazio orokorra, foru-administrazioa eta toki-administrazioa) erakundeak jaso dira.

Administrazio orokorra:

Eusko Jaurlaritzako sailak	10
Erakunde autonomoak	5
Erakunde eta sozietate publikoak	1
Beste erakunde batzuk	1

Foru-administrazioa:

Foru-aldundiak	3
----------------	---

Toki-administrazioa:

EUDEL	1
Arabako udalak	5
Bizkaiko udalak	32
Gipuzkoako udalak	14

GUZTIRA	72
----------------	-----------

Administrazio orokorra


Jaurlaritzako honako **sailak** hauek hartu dute parte: Lehendakaritza; Ogasun eta Herri Administrazio Saila (Lehendakariordetza); Justizia, Enplegu eta Gizarte Segurantza Saila; Barne Saila; Industria, Merkataritza eta Turismo Saila; Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila; Osasun Saila; Kultura Saila; Etxebizitza eta Gizarte Gaietarako Saila; eta Garraio eta Herri Lan Saila.

Honako erakunde autonomo hauek bidali dute informazioa: Emakunde, IVAP, Eustat, Euskadiko Poliziaren Ikastegia eta Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako Defendatzailea.

Beste erakunde hauek ere informazioa bidali dute: Osakidetza (**sozietate publikoa**) eta Euskal Herriko Unibertsitatea (**beste erakunde batzuk**).

Arartekoak EAEko emakumeen egoeraren inguruko informazioa bidali du. Informazio hori Eusko Legebiltzarrari urtero aurkezten dion txostenari dagokio.

Administrazio orokorraren parte-hartzea ebaluazioan (2006)




Foru-administrazioa

Hiru foru aldundiek parte hartu dute ebaluazioan. Zehazki, honako sail hauek hartu dute parte:

- **Arabako Foru Aldundia (n=7 sail):** Diputatu Nagusiak, Lehendakaritzak, Ogasun, Finantza, eta Aurrekontu Sailak, Sustapen Ekonomiko eta Berrikuntzaren Kudeaketa Sailka, Nekazaritza Saila, Kultura, Gazteria, eta Kirol Sailka eta Gizarte Gaietarako Sailak.
- **Bizkaiko Foru Aldundia (n=8 sail):** Herri Administrazioa; Ogasuna eta Finantzak; Berrikuntza eta Ekonomi Sustapena; Udal Harremanak eta Hirigintza; Lana eta Trebakuntza; Kultura; Gizarte Ekintza; eta Aukeren Berdintasun eta Generoen Politikarako Unitatea.
- **Gipuzkoako Foru Aldundia (n=3 sail):** Kalitatea Foru-Administrazioan; Gizarte eta Erakunde Harremanak; Giza Eskubideak, Lana eta Gizarteratzea.

Foru-administrazioaren parte-hartzea ebaluazioan (2006)



Toki-Administrazioa


EUDELeK eta hiru lurralde historikoetako honako udal hauek hartu dute parte:

- **Arabako udalak (n=5):** Gasteiz, Amurrio, Asparrena, Laudio eta Agurain.
- **Bizkaiko udalak (n=32):** Abadiño, Abanto, Areatza, Arrigorriaga, Balmaseda, Barakaldo, Barrika, Berango, Bermeo, Bilbo, Busturia, Durango, Elorrio, Ermua, Galdakao, Gernika-Lumo, Getxo, Gordexola, Gorniz, Gueñes, Leioa, Lekeitio, Lemoiz, Mungia, Ondarroa, Plentzia, Portugalete, Sopela, Trapagaran, Ugao, Urduliz eta Zalla.
- **Gipuzkoako udal eta mankomunitateak (n=14):** Andoain, Azkoitia, Azpeitia, Bergara, Donostia, Ezkio-Itsaso, Getaria, Irun, Legazpi, Oñati, Ordizia, Tolosa, Urretxu eta Zumarraga.

Datuen arabera, EAEn dauden 251 udalerrietatik, 51k hartu dute parte (%20,32). Udalerririk horiek biztanle guztien %68,64 (1.525.019) biltzen dute.

Ondoko taulan, hiru lurralde historikoei dagozkien datuak azaltzen dira.

Ebaluazioan parte hartu duten hiru probintzietako udalen ehunekoa, eta ordezkaturako biztanleen ehunekoa (2006)



Aipatutako 51 udalez gain, beste 29 udalek gutun edo mezu elektronikoko bidez (n=15), edo telefono bidez (n=11) jakinarazi zuten ez zituztela galdeketak bete.

Udal horietatik, 15ek adierazi zuten ez zutela IV. Planari lotutako jarduerarik egin 2006. urtean¹, 11 udalek, berriz, jakinarazi zuten Planari lotutako jarduerak egin zituztela, baina ezin izan zituztela galdeketak bete, denbora edo giza baliabide falta izan zutelako.²

Erakunde publiko batzuek, berriz, atzerapen handiarekin bidali dituzte galdeketak, eta horrek informazioa biltzeko epea bi hilabete eta erdi luzatzea eragin du.

Galdeketak betetzeari dagokionez, bi motatako akatsak atzeman dira: 1) emakumeen eta gizonen berdintasunarekin zerikusirik ez duten jardueren berri ematea (n=96); eta 2) galdeketa zuzena ez erabiltzea egindako jarduerari buruz informatzeko (n=102). Hala, lehenengo akatsaren kasuan, bidalitako galdeketa okerrak deuseztatu dira; eta, bigarren kasuan, galdeketak berriz bete behar izan dituzte.

¹ Villabona, Errenteria, Anoeta, Muxika, Urkabustaiz, Lagran, Hondarribia, Abaltzisketa, Alegia, Altzo, Amezketa, Baliarrain, Ikaztegieta, Orendain eta Lezo.

² Etxabarri, Santurtzi, Ea, Arrasate, Hernani, Zumaia, Muskiz, Sestao, Berriz, Eibar eta Basauri

IV. IV. PLANAREN EBALUAZIOAN LORTUTAKO EMAITZAK

Ebaluazioan lortutako emaitzak aurkezterakoan, honako helburu hauek erdiesteko bide ematen duen egitura hautatu da:

- Berdintasun-politiketan herri-administrazioek zer nolako joera orokor izan dituzten erakustea.
- IV. Plana noraino gauzatu den ezagutaraztea.
- Botere publikoek IV. Plana ezartze aldera abian jarri dituzten neurriak deskribatzea.
- Erakunde publikoek beren jardueretan genero-ikuspegia txertatuz joan daitezen errazteko abiarazi diren neurriak eta ekintzak erakustea.
- Botere publikoak bultzatzen ari diren berdintasunaren arloko politikak zein diren jakiteko bide ematen duten datuak aurkeztea.

Hala, atal hau sei multzotan egituratuta dago:

1. **EGINDAKO JARDUEREN EZAUGARRI NAGUSIAK:** botere publikoek lau ardatzen eta esku-hartzeko arloen barruan egindako jarduerak deskribatzen dira, modu orokorrean. Halaber, arloei dagokionez, arreta berezia jarriko zaie landutako programa eta helburuei eta baliatutako esku-hartze tresnei.
2. **ARDATZ ESTRATEGIKOETAN EGINDAKO JARDUERAK AZTERTZEA:** lau jarduera-ildoetan gauzatutako jardueren ezaugarriak modu zehatzagoan aztertu dira, ildo horiek islatzen dituztelako botere publikoek berdintasun-politiketan dituzten lehentasunak.
3. **IV. PLANA NORAINO GAUZATU DEN:** zati horretan, IV. Planean zehaztutako programa eta helburuak zer neurritaraino gauzatu diren azaldu nahi da. Izan ere, programa eta helburu horiek oso garrantzitsuak dira egin nahi den helburu- eta eragin-ebaluaziorako.
4. **IV. PLANA EZARTZEKO HARTU DIREN NEURRIAK:** Administrazio Orokorrak, Foru-administrazioak eta Toki-administrazioak bultzadari, koordinazioari eta kudeaketa-sistemei (plangintza eta ebaluazioa) lotutako zer neurri aplikatu dituzten jakiteko datuak ematen dira.

5. ERAKUNDE PUBLIKOETAN GENERO-IKUSPEGIA TXERTATZEN

LAGUNTZEKO EGINDAKO JARDUERAK: erakundeen barruan berdintasun-politikak (sentsibilizazioa; politikariak eta teknikariak prestatzea eta aholkatzea; emakumeen eta gizonen egoeren berri emango duten estatistikak sortzea; giza baliabideak, baliabide ekonomikoak...) gauzatu ahal izateko baldintzak sortzea helburu duten jarduerak jaso dira.

6. BOTERE PUBLIKOEN GAUZATUTAKO BERDINTASUN POLITIKAK:

jarduera espezifikoak jaso dira, bai tratu- eta aukera-berdintasuna sustatzea helburua dutenak, bai emakumeek, oro har, eta askotariko diskriminazioa jasan edo gizarte-bazterketan izateko arriskua duten emakumeen talde espezifikoek bizi ditzaketen bazterketa-egoerak hautematea, ezagutaraztea eta eraztea helburu dituztenak.

Azkenik, beharrezkoa da emaitzak aurkezterakoan sarri erabili den kontzeptu bat argitzea: **jarduera**. Termino hori erakunde publikoek txostenetan aipatzen duten jarduera zehatz edo programari dagokio, eta IV. Planean jasotako ekintza zehatz bati lotua dago. Ekintzak Planean jasotako estrategiak aurrera eramateko proposamen zehatzak dira, helburua lortzeko gara daitekeen lan-prozesu eta ikuspegi egoki gisa ulertuta. Jarduerak, berriz, erakunde publiko zehatz baten errealitateari, baliabideei eta eskumenei estuki lotuta daude.


1. EGINDAKO JARDUEREN EZAUGARRI NAGUSIAK

Zati honetan, botere publikoek gauzatu dituzten jarduerak ezagutzeko aukera ematen duen informazioa bildu da. Jarduera horiek **ardatz estrategikoei** (Mainstreaminga, Jabekuntza, Lana eta familia bateratzea eta erantzukizunak banatzea, eta Emakumeen aurkako indarkeria), Planeko **arlotan, programa eta helburuei**, erabilitako **esku-hartze tresnei** eta jardueren **hartaile diren taldeei** lotuta daude.

- **Ardatz estrategikoak**

Erakunde publikoek emandako informazioaren arabera, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako IV. Planari lotutako **852 jarduera** egin dituzte 2006 urtean zehar. Hona hemen jardueren banaketa, IV. Planean jasotako lau ardatz estrategikoen arabera:

Ardatz bakoitzean egindako jarduerak



Datu horien arabera, 2006. urtean, berdintasun-politiketan, *mainstreaminga* eta jabetuntzarekin lotutako ardatzak eta gizarte- eta politika-arloetan parte hartzeak izan dute lehentasuna. Hain zuzen, gauzatutako jardueren hiru laurden (n=629, %73,8) bi ardatz horiei dagozkie.

- **Esku-hartze arloak**

Esku-hartze arloei dagokienez, IV. Planean 6 ezarri badira ere, 9 arlo identifikatu dira ebaluazio honetan, arrazoi soilik praktikoak direla medio:

- IV. Plana gauzatzeko neurriak
- Kudeaketa-sistemak
- Berdintasunerako zerbitzu orokorrak
- Kultura
- Hezkuntza
- Lana
- Gizarteratzea
- Osasuna
- Hirigintza eta Ingurumena


Lehenengo bi arloetako ekintzak Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako 4/2005 Legean jaso dira; hala, nahitaez bete behar dira, eta horiek gauzatzea ezinbesteko baldintza da IV. Planean ezarritako helburuak betetzeko. Arestian aipatu bezala, aurreikusten da erakundeen barruan, erakundeen artean eta gizartean egiturak ezartzea eta berdintasun-planak edo -programak aurrera eramatea eta ebaluatzea.

Hirugarren arloari, berriz, Berdintasunerako Zerbitzu Orokorrek deritzo, eta bi jarduerak mota hartzen ditu barne: batetik, administrazioaren barruan berdintasun-politikak aurrera eramateko baldintzak sortzeko jarduerak; eta, bestetik, gizarte-sarearentzako jarduerak, berdintasun-politiken inguruko ebaluazioan, hausnarketan eta horien ezartze-prozesuan dagoen interes-maila, jakintza, inplikazioa eta parte-hartzea handitzeko asmoa dutenak.

Beste sei arloak administrazioak berdintasuna lortzeko baliatuko dituen esku-hartze eremu funtzionalei dagozkie. Arlo horiek administrazioetan ageri dira, egitura zehatzetan erraz ezagutzeko moduan. Halaber, sei arlo horiek 4/2005 Legeko III. Tituluan jasota daude.

Grafiko honetan, aipatutako 9 arloetan gauzatutako jarduerak islatzen dira:

Arlo bakoitzean egindako jarduerak



- IV. Plana ezartzeko neurriak (n=33)
- Berdintasunerako zerbitzu orokorrak (n=237)
- Kudeaketa-sistemak (n=20)
- Kultura (n=174)
- Hezkuntza (n=35)
- Lana (n=125)
- Gizarteratzea (n=179)
- Osasuna (n=31)
- Hirigintza eta Ingurumena (n=18)

Grafikoan ikusten den bezala, lau arlok dituzte jardueren ehuneko handienak, eta, lauren artean, 2006an egindako jarduera guztien %83,9 bildu dute: Berdintasunerako zerbitzu orokorrak (n=237; %27,8); Gizarteratzea (n=179; %21); Kultura (n=174; %20,4); Lana (n=125; %14,7).

- **IV. Planeko programak**

Erakunde publikoek jarduera gehien zein programatan egiten dituzten galdetzen denean, kontuan hartu behar da IV. Planean programak esku-hartze arloetarako beretarako (Berdintasunerako Legean aipatutakoak) soilik definitu direla. Hala, zati honetan, 6 arlo horietako jarduerak (N=562) bakarrik hartu dira kontuan.

Ondoko taulan jasotako datuen arabera, egindako jardueren %69,2 Planean jasotako 32 programetatik 9 gauzatzeko baliatu da (%28,1).

PROGRAMAK	MAIZT.	%
Emakumeak kulturaren eta arte-munduan egotea eta parte hartzea	83	14,8
Gizartearen eta kulturaren eremu guztietan sexismoa desagerraraztea	44	7,8
Enplegu-zerbitzuak emakumeen eta gizonen berdintasunera egokitzea	39	6,9
Lana lortzeko aukera berak izatea	30	5,3
Emakumeen eta gizonen lan-baldintzak parekatzea	36	6,4
Baztertutako emakumeen baldintzak eta egoera hobetzea	68	12,1
Tratu txar edo sexu-erasoen biktima diren emakumeentzako arreta hobetzea	89	15,8
GUZTIRA	389	69,2

- **IV. Planeko helburuak**

Zati hau egitean, helburuak zehaztuta dauzkaten Planeko arloak hartu dira kontuan, hots: Berdintasunerako zerbitzu orokorrak eta 6 esku-hartze arloak berak. Beraz, erreferentziatzko jarduera-kopurua 799 da.

Ondoko koadroan ikus daiteke egindako jardueren %74,1 IV. Planean jasotako 76 helburuetatik 15 (%19,7) gauzatzera bideratu dela.

PROGRAMAK	HELBURUAK	MAIZT.	%
Administrazioaren barruan berdintasun-politikak aurrera eramatea	Erakundea generoaren ikuspegia txertatzeko trebatzea	103	12,9
	Gizarteak berdintasun-politiketan duen interes-maila eta inplikazioa handitzea	50	6,3
	Berdintasuna bultzatzen duten elkarteak ugaritzea eta bultzatzea	66	8,3
Genero-ikuspegia kultura-arloetan integratzea	Jarduerak genero-ikuspegiaren oinarrituta planifikatu eta gauzatzen dituzten kultura-arloak eskaintzen dituzten administrazioen kopurua ugaritzea	16	2
Emakumeak kulturaren eta arte-munduan egotea eta parte hartzea	Emakumeen kultura- eta arte-arloko sorkuntza handitzea, baita gizartearen ikuspegi ez-sexista bultzatzen duena ere	83	10,4
Gizartearen eta kulturaren eremu guztietan sexismoa desagerraraztea	Pertsonen duintasuna haien sexuarekin lotzen duten irudi eta edukiak ezabatzea, baita emakumeen aurkako indarkeria justifikatzen, arintzen edo bultzatzen dutenak ere	44	5,5
Erantzukizunak banatzeko eta zaintzearen etikarako kultura sustatzea	Erantzukizunak banatzea eta zaintzearen etika sustatzen dituzten gizartearen eta kulturaren arloko guneak areagotzea	15	1,9
Enplegu-zerbitzuak emakumeen eta gizonen berdintasunerara egokitzea	Genero-ikuspegia enplegu-zerbitzuetan integratzea	38	4,7
Lana lortzeko aukera berak izatea	Industriako sektore tradizionaletako lanpostu teknikoetan gizonen eta emakumeen kopuruen artean dagoen aldea murriztea, emakumeen parte-hartzea handitzea	14	1,7


PROGRAMAK	HELBURUAK	MAIZT.	%
Emakumeen eta gizonen lan-baldintzak parekatzea	Administrazio publikoetan eta sektore pribatuko enpresetan emakumeen eta gizonen lan-baldintzak parekatzea, langile gehienak biltzen dituzten jardueradarrei lehentasuna emanda	23	2,9
Genero-ikuspegia gizarte-zerbitzuetan integratzea	Genero-ikuspegia txertatzea administrazio publikoetako gizarte-ekintzako arloen diagnostiko, plangintza, esku-hartze eta ebaluazioetan	13	1,6
Bazterketa jasaten duten emakumeen baldintzak eta egoera hobetzea	Pobrezia ekonomikoa izanda, baztertuta gelditzeko arriskua dutenentzako baliabideak egokitzea, egoera horretan dauden emakumeen baldintzak eta egoera hobetzen laguntzeko	35	4,4
	Pobrezia ekonomikoaren izanda, bazterketa-arriskua dutenentzako baliabideak egokitzea, egoera horretan dauden emakumeen baldintzak eta egoera hobetearren	15	1,9
Tratu txar edo sexu-erasoen biktima diren emakumeentzako arreta hobetzea	Indarkeria-zikloa lehenbailehen hautematea	53	6,6
	Tratu txarrak eta sexu-erasoak jasan dituztenen arreta-, laguntza- eta babes-eskariei modu koordinatuan, kalitatez eta eraginkortasunez erantzutea, EAEko herrietan etxeko tratu txarrei eta sexu-erasoei aurre egiteko udal-mailako protokoloak ezarriz	24	3
GUZTIRA		592	74,1%

- **Erabilitako esku-hartze tresnak**

Planean jasotako ekintza zehatzak, bai nahitaez bete behar direnak, bai gomendioak direnak, administrazioak eskura dituen esku-hartze tresnen arabera sailkatuta daude. Hona hemen tresna horiek:

- Jakintza sortzea
- Sentsibilizazioa, informazioa eta jendarteratzea
- Prestakuntza
- Baliabideak eta zerbitzuak sortzea eta egokitzea
- Arauak sortzea eta egokitzea
- Jarraipen-mekanismoak sortzea eta egokitzea

Tresna horiek beharrezkoak dira Planean jasotako programak gauzatu ahal izateko. Dena den, horiek erabiltzeko behar diren baliabideak, eta haien ondorioak edo eragina askotarikoak dira. Hala, tresna batzuk edo besteak erabiltzeak, zeharka, islatzen du botere publikoek emakumeen eta gizonen berdintasunaren alde aurrera egiteko jarduerak gauzatzean zer nolako inplikazio-maila duten. Ondoko grafikoan, esku-hartze tresna bakoitzari dagozkion jarduerak jaso dira.




Egindako 852 jardueretatik %60,6tan (n=517), honako alor hauek landu dira: sentsibilizazioa, informazioa eta jendarteratzea eta baliabideak eta zerbitzuak sortu eta egokitzea.

- **Talde hartzaileak**

Botere publikoek egindako jardueren hartzaile izan litezkeen 140 taldeetatik, lau izan dira egindako jardueren hartzaile nagusiak:

- Emakumezko helduak, oro har (n=230; %27)
- Gizonezko helduak, oro har (n=173; %20,3)
- Emakume-elkarteak (n=105; %12,3)
- Tratu txarrak edo sexu-erasoak jasandako emakumeak (n=82; %9,6)

Jardueren talde-hartzaile nagusiak



Gainerako 125 taldeetan, 1 eta 43 jarduera bitartean egin dira. Taldeak multzokatuz gero, ikusiko dugu gorabehera handiak daudela. Honela banatu dira jarduera guztiak talde-multzo guztien artean:

- Administrazio orokorra: 3 eta 9 jarduera bitartean
- Foru-administrazioa: 9 eta 12 jarduera bitartean
- Toki-administrazioa: 15 eta 25 jarduera bitartean
- Elkarteak, oro har: 6 eta 40 jarduera bitartean
- Arduradun politikoak: 2 eta 28 jarduera bitartean
- Administrazio orokorreko arduradun teknikoak: 3 eta 20 jarduera bitartean
- Foru-administrazioko arduradun teknikoak: 12 eta 15 jarduera bitartean
- Udal-administrazioko arduradun teknikoak: 9 eta 35 jarduera bitartean
- Enpleguaren eta trebakuntzaren arloko langileak: 1 eta 25 jarduera bitartean
- Zuzenbidearen arloko langileak: 0 eta 3 jarduera bitartean
- Hezkuntzaren arloko langileak: 3 eta 26 jarduera bitartean
- Osasunaren arloko langileak: 5 eta 11 jarduera bitartean
- Kultura eta aisialdiaren arloko langileak: 5 eta 8 jarduera bitartean
- Hedabideetako langileak: 8 jarduera

- Gizarte-zerbitzuetako langileak: 35 jarduera
- Berdintasunaren arloko langileak: 30 jarduera
- Era askotako diskriminazioa jasan eta gizartetik baztertzeko arriskua duten emakumeak: 2 eta 23 jarduera bitartean
- Gizarteko beste talde batzuk, oro har: 31 eta 43 jarduera bitartean
- EAEtik kanpoko taldeak: 2 eta 10 jarduera bitartean

EAEko administrazio publikoari dagozkion emaitza orokor guztiak aurkeztutakoan, 2. eranskinean, ebaluazioan parte hartu duen erakunde publiko bakoitzak egindako jarduerak zehazten dira, eskema batean. Eranskin horretan bertan, Arartekoak eta Emakumeen eta Gizonen arteko Berdintasunerako Defentsa Bulegoak jakinarazitako jarduerak jaso ditugu, laburbilduta.

2. ARDATZ ESTRATEGIKOETAN EGINDAKO JARDUERAK AZTERTZEA

Atal honetan, IV. Plana osatzen duten lau jarduera-ardatzetan egindako jardueren ezaugarriak aztertzen dira, xehetasunak aintzat hartuta, horren arabera ikusten baita botere publikoek berdintasun-politiken zein lehentasun nagusi jorratu dituzten.

- **MAISTREAMINGA**

Ardatz horretan, 302 jarduera egin dira eta %32,1 (n=97) ardatz horretan jasotako 7 programetan oinarritu da.

PROGRAMAK	MAIZT.	%
Genero-ikuspegia kulturaren txertatzea	14	4,6
Genero-ikuspegia enplegu-zerbitzuetan txertatzea	11	3,6
Genero-ikuspegia gizarte-zerbitzuetan integratzea	39	13,0
Genero-ikuspegia osasun-sisteman txertatzea	13	4,3
Emakumeek bereziki izandako gaixotasunak modu hobean tratatzea	4	1,3
Genero-ikuspegia hirigintza-, garraio- eta ingurumen-alorrekin zerikusia duten politika eta proiektuetan txertatzea	9	3,0
Hezkidetzaren ikastetxeetan bultzatzea	7	2,3
GUZTIRA	97	32,1%

Gainerako jardueretatik (n=205) %67,9 alor hauetako ekintza eta helburuetan jasota daude: IV. Plana Gauzatzeko Neurriak (n=32; %10,6), kudeaketa-sistemak (n=20; %6,6) eta zerbitzu orokorrak (n=153; %50,7).

Datu horiek erakusten digutenez, 2006an zehar, erakunde publikoek alde aurretiko jarduerari eman diete lehentasuna. Halako jarduerak oinarritzotzat jotzen ditu Planak, berdintasunerako politikak erakundeetan garatzeko. Honako taula honetan, 205 jarduera horiek egiteko erabilitako tresnak zehazten dira:

ESKU-HARTZE TRESNAK	MAIZT.	%
Jakintza sortzea	24	11,7
Sentsibilizazioa, informazioa eta jendarteratzea	66	32,2
Prestakuntza	26	12,7
Baliabideak eta zerbitzuak sortzea eta egokitzea	36	17,6
Arauek sortzea eta egokitzea	30	14,6
Jarraipen-mekanismoak sortzea eta egokitzea	23	11,2
GUZTIRA	205	100

Erakundeetan berdintasun-politikak garatzeko tresnen erdia inguru sentsibilizazioan eta trebakuntzan oinarritu dira. Sentsibilizazio-jarduera gehienetan, berdintasun-politikak zabaltzea (n=41) eta hizkuntza ez-sexista erabiltzea (n=20) izan dira helburu nagusiak.

Genero-ikuspegia txertatzeko lana koordinatzea eta bultzatzea izan da kasu gehienetan martxan jarritako baliabide eta zerbitzuen helburua, eta sektore bakoitzeko politiken arduradunei aholkuak eta babesa eman zaizkie horretarako.

Arauk sortzeko eta egokitzeko lanaren bidez, honako helburu hauek lortu nahi ziren: berdintasun-politikak bultzatzeko, koordinatzeko eta haien jarraipena egiteko egiturak ezartzea (n=14), diru-laguntzak emateko garaian ekintza positiboko irizpideak aintzat hartzea (n=5), gizartean emakumeek eta elkarteen mugimenduak politika publikoetan parte hartzeko egiturak sortzea (n=4).

Jakintza sortzeko jardueren erdia baino gehiago (n=13) bi ardatzetan oinarritu dira: diagnostikoa egitea genero-ikuspegia zenbateraino txertatuta dagoen eta sail bakoitza horrelako ikuspegiak txertatzeko prest zenbateraino dagoen neurtzeko (n=9), eta herritarrek berdintasun-politiken inguruan dituzten iritzien berri jasotzea (n=4).

Azkenik, jarraipen-jardueren hiru laurdenetik gora, honako bi alor hauen artean banatu dira: erakundeen arteko eta barruko egituretatik egindako jarduerak (n=12) eta berdintasun-planen ebaluazioa (n=10).

- **JABEKUNTZA**

Ardatz horretan, 327 jarduera egin dira eta %79,5 (n=260) ardatz horretan jasotako 11 programetan oinarritu da.

PROGRAMAK	MAIZT.	%
Emakumeak kirol-arloan egotea eta parte hartzea	16	4,9
Emakumeak kultura- eta arte-arloan egotea eta parte hartzea	83	25,4
Emakumeak hedabideetan egotea eta parte hartzea	3	0,9
Erantzukizunak banatzeko kultura eta zaintzearen etika sustatzea	1	0,3
Hezkuntza-sistemako erabakitzeguneetan parte hartzea	2	0,6
Jakintza ez-sexista sortzea eta jasotzea	2	0,6
Lana lortzeko aukera berak izatea	30	9,2
Emakumeen eta gizonen lan-baldintzak parekatzea	36	11,0
Era askotako diskriminazioa jasan eta baztertuta gelditzeko arriskua duten emakumeen baldintzak eta egoera hobetzea	70	21,4
Emakumeek beren ugalketa-osasunaren inguruan erabaki gehiago hartzea	13	4,0
Hirigintzaren, garraio publikoaren eta ingurumenaren alorretan plangintzak, diseinuak eta hobekuntzak egiteko prozesuetan emakumeek parte-hartze parekatua izatea	4	1,2
GUZTIRA	260	79,5

Datuek erakusten digutenez, emakumeen jabeakuntza lortzeko, erakundeek bi programak hauek lehenetsi dituzte 2006. urtean: emakumeak kultura- eta arte-arloan egotea eta parte hartzea (n=83; %25,4) eta era askotako diskriminazioa jasan eta baztertuta gelditzeko arriskua duten emakumeen baldintzak eta egoera hobetzea (n=70; %21,4).

Lehen programari dagokionez, egindako jarduera gehienak sensibilizaziora (n=51) eta trebakuntzara (n=17) bideratu dira. Bestalde, trebakuntza-jardueren barruan, era askotako garapen pertsonaleko ikastaroak antolatu dira.

Era askotako diskriminazioa jasan eta baztertuta gelditzeko arriskua duten emakumeen baldintzak eta egoera hobetzeko programaren barruan, jarduera mota ugari landu dira, IV. Planean aipatutako taldeentzat. Esku hartzeko lau tresna erabili dira, gehienbat: baliabideak eta zerbitzuak sortzea eta egokitzea (n=31); laguntza ekonomiko eta sozial osagarriak, aholkularitza juridiko eta psikologikoa emateko zerbitzua; trebakuntza (n=11); jakintza sortzea (n=8), eta sentsibilizazioa (n=5).

Aipatutako 11 programetatik kanpo gelditzen diren gainerako 68 jardueren bidez, berdintasuna bultzatzen lan egiten duten elkarteak ugaritu eta sustatu nahi dira. Horretarako, honako neurri hauek jorratu dira gehienbat: berdintasunaren alde diharduten emakume-elkarteei diru-laguntzak emateko programak (n=25); emakumeek parte hartzeko egiturak dinamizatzea eta sareak sortzen laguntzea (n=8); elkartzeko, gogoeta egiteko eta ideiak trukatzeko jardunaldiak antolatzea (n=7); emakumeentzako jabekuntza-eskolak sortzea bultzatzea (n=6), eta gizontasun-ereduak eta berdintasunean oinarritutako banakako nahiz gizarte-mailako harremanak lantzeko gizonen lan-taldeak sortzea (n=4).

- **LANA ETA FAMILIA BATERATZEA ETA ERANTZUKIZUNAK BANATZEA**

Ardatz horretan, 46 jarduera egin dira, eta, (n=42) IV. Planean lana eta familia bateratzeko eta erantzukizunak banatzeko proposatutako 8 programetatik, zazpirekin lotuta dago jarduera horien %91,3.

PROGRAMAK	MAIZT.	%
Erantzukizunak banatzeko kultura eta zaintzearen etika sustatzea	14	30,4
Erantzukizunak banatzeko eta zaintzearen etika sustatzea ikasleen artean	1	2,1
Ikastetxeetako denborak eta egiturak egokitzea eta berrantolatzea	2	4,3
Gizartea antolatzeko eredu berria sustatzea	1	2,1
Lan-bizitza, norberaren bizitza eta familia-bizitza bateratzeko neurriak eta babesa emateko zerbitzuak	15	32,6
Autonomia funtzionalik ez dutenak zaintzeko gizarte- eta komunitate-baliabideak	8	17,4
Herrietako eta garraioetako azpiegiturak egokitzea lan- bizitza, norberaren bizitza eta familia-bizitza bateratu ahal izateko eta norberaren autonomia garatu ahal izateko.	1	2,1
GUZTIRA	42	91,3

2006an, erantzukizunak banatzea eta lana eta familia bateratzea jorratzen dituzten hiru programa lehenetsi dira: lan-bizitza, norberaren bizitza eta familia-bizitza bateratzeko neurriak eta babesa emateko zerbitzuak (n=15; %32,6); erantzukizunak banatzeko kultura eta zaintzaren etika sustatzea (n=14, %30,4), eta autonomia funtzionalik ez dutenak zaintzeko gizarte- eta komunitate-baliabideak (n=8, %17,4).

Lan- bizitza, norberaren bizitza eta familia-bizitza bateratzen laguntzeko neurriak eta babesa emateko zerbitzuen barruan egindako jardueren artean, eskura dauden baliabideen inguruko sensibilizazioa, informazioa eta trebakuntza landu dira (n=9), amatasun/aitatasun-baimenak nahiz laguntza behar duten pertsonak zaintzeko gizonentzako nahiz emakumeentzako baimenak gehiago erabil daitezzen. Horrekin batera, arauak finkatu dira horrelako neurriak hartzen dutenen lanbidearen garapena ez oztopatzeko (n=2), eta amatasun- nahiz aitasun-bajak edo baimenak garaiaz eta ondo ordezkatu ahal izateko.

Erantzukizunak banatzeko kultura eta zaintzaren etika sustatzeari dagokionez, gizon eta emakumeen zereginak dibertsifikatzeko tailerrak antolatu dira gehienbat (n=7), eta gai horren inguruko aisialdiko jarduerak prestatu dira haur eta gazteekin lantzeko (n=5).

Azkenik, autonomia funtzionalik ez dutenentzako gizarte- eta komunitate-baliabideak eskaintzeko programaren barruan, kasuen erdian, autonomiarik ez duten pertsonak zaintzen dituzten emakumeak/pertsonak laguntzeko eta orientatzeko zerbitzu berezia sortu da gizarte-ekintzarako arloen barruan. Kasu batean, etxez etxeko laguntzarako aurrekontua handitu da, eta, beste batean, diru-laguntza publikoen dekretuetan sartu dira autonomiarik ez duten pertsonen zaintzaren inguruan lan egiten duten programak eta gizarte-eragileak.

- **EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIA**

Ardatz horretan, 177 jarduera antolatu dira. %92,1ek (n=163) IV. Planeko sei programekin du zerikusia, eta ondorengo taulan laburbiltzen dira.

PROGRAMAK	MAIZT.	%
Gizartearen eta kulturaren eremu guztietan sexismoa desagerraraztea	44	24,9
Eskola-komunitatearen barruko indarkeriari aurre egitea eta bitartekaritza-lana egitea	17	9,6
Lan-munduko sexu-jazarpenari aurre egitea eta desagerraraztea	4	2,3
Tratu txarrak edo sexu-erasoak jasan dituzten emakumeentzako arreta hobetzea	88	49,7
Indarkeria jasan duten emakumeentzako arreta fisiko eta psikologikoa	4	2,2
Emakumeen segurtasuna eta segurtasun-sentipena hobetzea	6	3,4
GUZTIRA	163	92,1

Datuetan ikusten dugunez, jarduera gehien-gehienak bi programaren barruan egin dira: tratu txarrak edo sexu-erasoak jasan dituzten emakumeentzako arreta hobetzea (n=88, %49,7) eta kultura- eta gizarte-alorretan sexismoa desagerraraztea (n=44, %24,9).

Lehen programan, honako alor hauek jorratu dira jarduera gehienetan:

- Etxeko indarkeriaren eta emakumeen aurkako sexu-erasoen kausak eta eragina neurtu ahal izateko ikerketak egitea (n=7).
- Emakumeen aurkako indarkeria-zikloa lehenbailehen prebenitzeko jardunbide egokien inguruan ikertzea (n=3).
- Herritarrak sentsibilizatzeko kanpainak egitea (n=12).
- Neurriak hartzeko protokoloak garatzeko jarraibideak jasotzen dituzten gidak prestatzea (n=8).
- Etxeko indarkeria nahiz sexu-erasoak jasan dituzten emakumei arreta ematen diharduten langileentzako trebakuntza (n=14).
- "Berdinsarea: indarkeriaren aurkako eta berdintasunaren aldeko udalak" eratzeko eta sendotzeko jarduerak (n=8).
- Indarkeria-zikloaren lehen faseetan dauden emakumei etxetik etxeko laguntza eta arreta emateko zerbitzuak sortzea (n=11).

Gizarte- eta kultura-alorretatik sexismoa desagerrarazteko programaren barruan egindako jarduera gehienetan (n=41), sentsibilizazio-kanpainak egin dira, emakumeen aurkako indarkeriaren erroak eta indarkeria hori gizartean, kulturaren eta hedabideetan nola agertzen den herritarrei azaltzeko.

3. IV. PLANA NORAINO GAUZATU DEN:


IV. Planean, zehaztutako programen eta helburuen gauzatze-mailari buruzko datuak ematen dira, hots, berdintasunerako zerbitzu orokorretako arloetan eta esku hartzeko sei arlo zehaztetan horrelakoak zenbateraino gauzatu diren.

Planean, 32 programa eta 76 helburu zehazten dira, goian aipatutako paragrafoan zehaztutako arloetan banatuta. Honako koadro honetan laburtzen da hori guztia:

ARLOAK	MAINSTREAMINGA		JABEKUNTZA		LANA ETA FAMILIA BATERATZEA ETA ERANTZUKIZUNAK BANATZEA		INDARKERIA		GUZTIRA	
	Programa	Helburua	Programa	Helburua	Programa	Helburua	Programa	Helburua	Programa	Helbur.
Berdintasunerako zerbitzu orokorrak	-	2	-	2	-	2	-	2	0	8
Kultura	1	1	3	6	1	1	1	2	6	10
Hezkuntza	1	2	2	5	2	3	1	2	6	12
Lana	1	1	2	6	2	3	1	1	6	11
Gizarteratzea	1	1	1	7	1	1	1	3	4	12
Osasuna	2	5	1	4	1	2	1	1	5	12
Hirigintza, garraio publikoa eta ingurumena	1	3	2	4	1	2	1	2	5	11
GUZTIRA	7	15	11	34	8	14	6	13	32	76

Adierazitako arlo bakoitzean jasotako programa- eta helburu-kopurua zehaztu ondoren, ardatz estrategiko bakoitzean jorratutako programa eta helburuen ehunekoa zehazten da ondorengo grafikoan, bai eta helburu bakoitzaren barruan zenbat jarduera egin diren batez beste.

Landutako programen eta helburuen ehunekoa eta helburu bakoitzean batez beste zenbat jarduera egin diren




Grafikoko datuetan ikusten denez, mainstreamingaren eta emakumeen aurkako indarkeriaren arloetan gauzatu dira programa eta helburu gehien. Arrazoiak:

- Planean zehaztutako programa guztietan egin dira jarduerak.
- Planean zehaztutako helburuen %93,9 eta %100 agertu dira jardueretan, hurrenez hurren.
- Helburu bakoitzeko jardueren batez besteko handiena dute ardatza horiek (17,9 eta 13,6, hurrenez hurren).

IV. Planeko esku hartzeko sei arloak berdintasuna lortzeko landu beharreko administrazioko esparru funtzionalak direnez, interesgarria iruditu zaigu erakustea 2006an esku hartzeko sei arlo horietako bakoitzean programa eta helburu bakoitza zenbateraino bete den.

Landutako programen eta helburuen ehunekoa eta esku-hartze arlo bakoitzean batez beste zenbat jarduera egin diren



Datuetan ikusten dugunez, programen eta helburuen betetze-maila oso desberdina izan da arlo bakoitzean:

- Lau arlotan, programa guzti-guztietan egin dira jarduerak.
- Lanari dagokion arloan, helburu guzti-guztietan egin dira jarduerak.
- Kultura-, gizarteratze- eta lan-arloan antolatu dira jarduera gehien Planean zehaztutako helburu bakoitzaren barruan.

Bi grafikoetan jasotako emaitzetan ageri denez, programa eta helburu asko jorratu dira 2006an. Halere, botere publikoek horrelakoak antolatzeko garaian egindako ahalegina oso desberdina izan da bakoitzean, atal honetan aztergai ditugun arloetan egindako 561 jardueretatik %69,3 (n=389) Planean jasotako zazpi programetan oinarritu baita:

- Emakumeak kulturaren eta artearen eremuan egotea eta parte hartzea
- Gizartearen eta kulturaren eremu guztietan sexismoa desagerraraztea

- Enplegu-zerbitzuak emakumeen eta gizonen berdintasunera egokitzea
- Lana lortzeko aukera berak izatea
- Emakumeen eta gizonen lan-baldintzak parekatzea
- Bazterketa jasaten duten emakumeen baldintzak eta egoera hobetzea
- Tratu txarrak edo sexu-erasoak jasan dituzten emakumeentzako arreta hobetzea

Helburuei dagokienez, egindako jardueren %74,1 (n=592) IV. Planean zehaztutako helburuen %19,7ra (n=15) bideratu da. Helburu horiek aurreko atalean aipatu ditugu.

Beste muturrean daude 2006an landu ez diren beste 11 helburuak:

- Gizartearen antolakuntza aldatzen laguntzen duten tresnak sortzea, erantzukizunak gizonen eta emakumeen artean banatzeko eta norberaren bizitza, familia- nahiz lan-bizitza bateratu ahal izateko.
- Emakumeek eta gizonek hedabideetan modu orekatuan parte hartzea.
- Emakumeen aurkako indarkeria prebenitzeko eta ezabatzeko sentsibilizazio-kanpaina gehiago antolatzea.
- Berdintasunaren Legeko 30. artikulua betetzen ez duten hezkuntza-materialik ez erabiltzea.
- Hezkuntza-sisteman, haur eta lehen hezkuntzako alor guztietan gizonen eta emakumeen kopuruan dagoen aldea murriztea.
- Gizartetik baztertuta gelditzeko arriskua duten ezinduentzako baliabideak egokitzea, egoera horretan dauden emakumeen baldintzak eta egoera hobetzeko.
- Osasun-arazoak edo zainketa beharra izanik gizarte- eta osasun-zerbitzuetan arreta jasotzen duten pertsona ez-autonomoen kopurua handitzea.
- Osasun-arretako ordutegiak zabaltzea, osasun-arreta eta norberaren bizitza, familia-nahiz lan-bizitza bateratu ahal izateko.
- Hirigintza-, garraio- eta ingurumen-alorreko arduradun publiko eta teknikoen artean emakumeen kopurua handitzea, gutxienez 40-60ko proportziora iritsi arte.
- Herrietako elementuen bidez (kaleen eta plazen izenak, monumentuak, etab.) gizonei eta emakumeei egiten aintzatespena orekatzea.
- Garraio publikoetan familia-bizitza, lan-bizitza eta norberaren bizitza bateratzen laguntzeko neurriak hartzea.

4. IV. PLANA EZARTZEKO HARTUTAKO NEURRIAK

Administrazio orokorrak, foru-administrazioek eta udal-administrazioek berdintasun-politikak bultzatu, koordinatu eta kudeatzeko (plangintza eta ebaluazioa) hartutako neurriak zehazten dira atal honetan.

4.1 Berdintasun-politikak bultzatu eta koordinatzeko neurriak

IV. Planean esatenenez, Plan hori erakundeetako maila guztietan ezartzeko, ezinbestekoa da egitura berezi batzuk sortzea gizonen eta emakumeen arteko berdintasun-politikak bultzatu, programatu, aholkularitza eman eta ebaluatzeko, bai eta erakundeen barneko nahiz arteko koordinazioaz arduratzeko ere. Honako egitura hauek dira:


- *Emakumeen eta gizonen arteko berdintasunerako administrazio-unitateak.* emakumeen eta gizonen arteko berdintasun-politikak ezartzen direla ziurtatu behar dute, eta Plana garatzeko jarduera-programa landu behar dute. Horrekin batera, laguntza teknikoa edo aholkularitza eman behar diete dagokion erakunde publikoko gainerako organo eta sailei.
- *Emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna koordinatzeko erakundeen barruko egiturak:* administrazio orokorraren kasuan, berdintasun-politikak arlo bakoitzean zenbateraino bete diren eta nola kudeatzen diren jakitea, sailen arteko jarduerak koordinatzea eta bultzatzea, eta alor horretan gaitasunak garatzea eta tresnak sortzea da egitura horien helburua; foru-administrazioan eta udal-administrazioetan, berriz, berdintasun-politikak prestatu, jarraipena egin eta ebaluatzea izango da egitura horien egitekoa, sail guztiak modu koordinatuan jarduten dutela ziurtatzearekin batera.
- *Emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna ezartzeko erakundeen arteko egiturak:* EAEko administrazio publikoko hiru mailetan berdintasuna lortzeko politikak eta programak koordinatzeaz arduratzen dira egitura horiek.

- *Emakumeek eta elkarten mugimenduak politika publikoetan parte hartzeko egiturak:* oro har, hauek dira egitura horien zereginetako batzuk: EAEko administrazio publikoei berdintasunaren inguruan aholku ematea, berdintasun-planen inguruan eta alor horretako arau-proiektuen inguruan txostenak egitea, emakume-elkarteen arteko lankidetzak bultzatzea eta emakumeen jabetasunaren sustatzea.

2006ko urtean, 33 jarduera egin dira IV. Plana bultzatu eta hedatzeko: jarduera horietako 14 aipatutako lau egitura horiek sortzeko egin dira, beste 19 jardueren helburua, berriz, zera izan da: erakundeen arteko nahiz barruko egituretan, EAE, foru- nahiz uda-mailan landutako berdintasun-politiken jarraipena egitea eta halako politikak bultzatzea.

Ondorengo grafikoan ikusten denez, jardueren %57,5ek halako egituretan berdintasun-politiken jarraipena egitea edo politika horiek bultzatzea zuen helburutzat (n=19); %18,2k erakunde arteko egiturak sortzea (n=6); jardueren %15,5 administrazio-unitateak sortzeko egin da (n=5); %6,1 parte hartzeko gizarte-egiturak ezartzeko (n=2) eta %3 erakunde arteko egiturak sortzeko (n=1).

IV. Planean ezarri beharreko neurriak



- **Emakumeen eta Gizonen arteko berdintasunerako Administrazio-Unitateak.**

2006an, lau unitate sortu dira:

- Berdintasunerako Zuzendaritza sortu du EHUK
- Berdintasunerako teknikariak kontratatu dituzte Arabako Foru Aldundian
- Berdintasunerako Udal Zerbitzua sortu du Arrigorriagako Udalak, eta udal-teknikari bat eta generoan aditu den kanpo-aholkulari bat kontratatu ditu.
- Berdintasunerako Zerbitzua sortu dute Uribe Kostako Mankomunitatean eta berdintasunerako teknikari bat kontratatu dute.

Bestalde, otsailaren 18ko 4/2005 Legeko 11. artikulua garatuz, Emakundek dekretu-proiektu bat prestatu du, Gobernu Saitetako Berdintasunerako Unitateak arautzeko.

- **Erakunde barruko koordinazio-egiturak**

Honako erakunde publiko hauetan, horrelako bost egitura sortu dira :

- Justizia, Lan eta Gizarte Segurantza Saila (lan-talde egonkorra sortu dute)
- Bizkaiko Foru Aldundiko Ogasun eta Finantza Saila (sail barruko taldea)
- Bizkaiko Foru Aldundiko Berrikuntza eta Ekonomi Sustapen Saila (sail barruko batzordea)
- Gipuzkoako Foru Aldundiko Giza Eskubideetarako, Enplegurako eta Gizarteratzeko Departamendua (sailen arteko batzordea)
- Arrigorriagako Udala (arloen arteko berdintasun-batzordea)

Emakundek dekretu-proiektu bat prestatu du Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Sailen arteko Batzordea arautzeko.

- **Erakundeen arteko koordinazio-egiturak**

Emakundek dekretu bat prestatu du Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Erakundeen arteko Batzordea arautzeko.

- **Gizarteak parte hartzeko egiturak**

Gipuzkoako Foru Aldundiak "Gipuzkoako Emakume Elkarten Sarea" sortu du. Hala, 2006an, EAeko hiru foru-aldunditatik, bik gizarteak parte hartzeko egituraren bat zuten. Bat aipatu berri dugun Gipuzkoako sare hori, eta bestea Bizkaiko Berdintasunerako Aholku-Foroa.

Udal-mailan ez da horrelako egiturarik sortu. Gure datuen arabera, 18 udaletan dituzte emakumeek parte hartzeko egiturak. Honako udal hauek dira: Arrasate, Azkoitia, Azpeitia, Basauri, Bilbo, Donostia, Durango, Eibar, Ermua, Galdakao, Gasteiz, Getxo, Hernani, Irun, Ondarroa, Ortuella, Portugalete eta Urretxu.

Bestalde, Emakumeen Berdintasunerako EAeko Kontseilua sortzeko jardueren berri eman digu Emakundek.

Oraingoz, emakumeen elkarteak eta elkarteetako parte-hartzea areagotzeko Aholku Batzorde bat dago. Batzorde hori EAeko emakumeen elkarten ordezkaria da eta erakunde horiek Emakunderekin harremanetan jartzeko bidea, 103/1998 Dekretuan formalki zehazten denez.

- **Egituren bidez egindako jarraipena eta sustapena**

10 erakunde publikok berdintasun-politiken jarraipena eta sustapena egiteko 19 jarduera antolatu dituzte erakundeen arteko, udalen arteko, erakundeen barruko koordinazio-egituretan nahiz gizarteak parte hartzeko koordinazio-egituretan. Honako erakunde hauek horiek:

- Osasun Saila
- Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Saila
- Emakunde
- Arabako Foru Aldundiko Nekazaritza Saila
- Arabako Foru Aldundiko Gizarte Gaietako Saila
- Bizkaiko Foru Aldundiko Gizarte Ekintzarako Saila
- Bilboko Udala
- Gasteizko Udala
- Azkoitiko Udala

4.2 Programazioa eta ebaluazioa

IV. Planean bertan zehazten denez, programazioa eta ebaluazioa dira plan hori kudeatzeko tresna nagusiak. Horregatik, erakunde publikoak bi tresna horiek zenbateraino erabiltzen ari diren neurtzeko lagungarria den informazioa biltzea oso garrantzitsua da hemen. 2006an, 9 jarduera egin dira programazioaren barruan (berdintasun-planak edo –programak), eta beste 12, emakumeen eta gizonen arteko berdintasun-politiken ebaluazioaren barruan.

– Programazioa

2006an, sei erakunde publikok onartu dituzte emakumeen eta gizonen arteko berdintasun-planak:

- Emakunde (EAEko IV. Plana)
- Arabako Foru Aldundia (II. Plana)
- Irungo Udala (II. Plana)
- Lekeitioko Udala (I. Plana)
- Mungiako Udala (II. Plana)
- Urola Garaiko Mankomunitatea (Bailarako I. Plana)

Bestalde, Bizkaiko Foru Aldundiko Aukera Berdintasunerako eta Genero Politiketarako Unitateak diru-laguntzak eman dizkie Bizkaian 5.000 biztanle baino gutxiago duten 21 udali, besteak beste, berdintasun-proiektuak prestatzeko (2007ko ebaluazioan ikusiko dira proiektu horien emaitzak).

Bestalde, zenbait erakunde publikok eta bestelako erakundeek berdintasunerako plan sektorialak prestatu dituzte enplegu-alorrean:

- Ermuko Udaleko Ekonomi Sustapen, Enplegu eta Trebakuntza Alorra.
- Gasteizko Udaleko Enplegu Saila.
- Gipuzkoako Foru Aldundiko Giza Eskubideetarako, Enplegurako eta Gizarteratzeko Saila
- Lanbide.
- Debegesa.
- Txorierriko Behargintza.
- Elizbarrutiko Cáritas.

Ermuko kasuan izan ezik, halako planak prestatu dituzten gainerako erakundeek Emakundek sustatutako proiektu baten barruan daude, eta Europako Gizarte Funtzak %50 finantzatu du.


Proiektu horrek giza baliabideak jarri zituen erakundeen esku, mainstreamingeko ereduak lantzen eta ezartzen laguntzeko, berdintasunerako teknikariak kontratatuz. Horrekin batera, erakundeetan, genero-mainstreaminga txertatzeko eredu orokor bat prestatu zen, eta erakunde bakoitzean antolatutako lan-taldeentzako transferentzia eta prestakuntza eredu bat. Proiektu horren bidez, erakunde eta eredu-esperientzia bakoitzak enplegurako genero-mainstreamingeko plan bat prestatu du.

Udaletako eta probintzietako berdintasun-planari dagokienez, 2005ean, 41 udalek eta bi aldundik zeuzkaten berdintasun-planak osatuta eta onartuta. Honako hauek: Abadiño, Abanto-Zierbena, Amurrio, Areatza, Arrasate, Azkoitia, Azpeitia, Balmaseda, Barakaldo, Basauri, Berango, Berriz, Bilbo, Donostia, Durango, Eibar, Elorrio, Ermua, Galdakao, Gasteiz, Gernika-Lumo, Getxo, Gordexola, Gueñes, Hernani, Irun, Laudio, Leioa, Mungia, Muskiz, Ondarroa, Ortuella, Portugalete, Santurtzi, Tolosa, Ugao, Urretxu, Trapagaran, Zalla, Zarautz eta Zierbena eta Bizkaiko eta Gipuzkoako aldundiak.

Emandako datuak kontuan hartuta, berdintasun-plana duten udalen kopurua zertxobait handitu da 2006an: EAeko 41 udal eta mankomunitate bat (lau udalek osatua):


- Udal gehienak Bizkaian daude (n=29; %64,4)
- %28,9 Gipuzkoan (n=13)
- Gainerako hirurak Araban (%6,7).

Berdintasun-plana duten udalak EAeko hiru lurralde historikoetan nola banatzen diren




Ondorengo grafikoan ikusten denez, emandako datuen arabera, 2006an, EAeko 205 udalek ez zuten emakumeen eta gizonen arteko berdintasun-planik: Bizkaian %40k; Gipuzkoan %36,1ek eta Araban %23,4k.

Berdintasun-Planik ez duten udalak hiru lurralde historikoetan nola banatzen diren



Bi grafikoetako datuetan ikusten denez, Bizkaiari daude berdintasun-plana duten udal gehienak, baina baita planik ez duten udal gehienak ere. Plana duten udalek lurralde bakoitzaren herritarren zer ehuneko hartzen duten ikusten da ondorengo grafikoan.

Emakumeen eta gizonen arteko berdintasun-plana duten herrietan bizi den biztanleriaren ehunekoa



Grafikoan ikusten denez, Gipuzkoako biztanleen %60 emakumeen eta gizonen arteko berdintasun-plana duten herrietan bizi da; Bizkaian biztanle guztien %80 dago egoera horretan, eta Araban %90 inguru.

Foru-administrazioei dagokienez, 2006an, EAEko hiru aldundiek zuten berdintasun-planik. Aurreko urtean, Gipuzkoak eta Bizkaiak bakarrik zuten halako planik, eta, Araban, II. Plana prestatzeko eta onartzeko prozesuan zeuden, eta, ordurako, I. Plana ez zegoen indarrean.

– **Ebaluazioa**

Erakunde publikoek jakinarazi digute 2006. urtean emakumeen eta gizonen arteko berdintasun-politikak ebaluatzeko 12 jarduera egin dituztela.

Administrazio orokorra

Bi erakundek egin dituzten ebaluazio-jarduerak: Emakundek (n=3) eta Justizia, Lan eta Gizarte Segurantza Sailak (n=1). Lehenbizikoak honako hauek egin ditu: 4/2005 Berdintasunerako Legearen hasierako ebaluazioa, EAEko Emakumeentzako Ekintza Positiboko III. Planaren ebaluazio orokorra eta erakundearen jarduera-memoriaren ebaluazioa. Bigarrenak, berriz, lan- eta familia-bizitza bateratzeko neurriek izandako eragina neurtu ditu bere ebaluazioan.

Foru-administrazioa

Bai Arabako Foru Aldundiak bai Bizkaikoak jakinarazi digute beren berdintasun-planen ebaluazioa edo diseinua egin dutela. Bizkaiko aldundiak, bestalde, Bizkaian sexuen artean dagoen desorekaren jarraipena egiteko ebaluazio bat ere egin du.

Udal-administrazioak

Lau udalek egin dituzte emakumeen eta gizonen arteko berdintasun-planak ebaluatzeko jarduerak. Honako udal hauek dira:

- Amurrio
- Arrigorriaga
- Portugalete
- Gasteiz


Bestalde, Gasteizko Udalak emakumeen aurkako indarkeriari aurre egiteko udal-planaren (2003-2005) ebaluazioa egin du.

– Programaziora edo ebaluaziora zehazki xedatutako dirua

Era horretako 21 jarduera egin dituzte erakunde publikoek, baina 15ek izandako kostuaren berri jaso dugu bakarrik: 8 planak egiteko gastuak ziren eta beste 7ak, planak ebaluatzeko gastuak.

Guztira, honako hau izan da programaziora eta ebaluaziora xedatu den kopurua: **334.004,48 €**. Hortik, %35,4 ebaluaziorako erabili da eta %64,6, programaziorako.

Erakunde publikoek Plangintzan eta Ebaluazioan zenbat gastatu duten (N=15)



Oro har, planak **ebalutzeko** egin den **batez besteko kostua** 16.892,28 € izan da eta **plangintzan** erabilitakoa, 26.969,81 €.

5. ERAKUNDE PUBLIKOETAN GENERO-IKUSPEGIA TXERTATZEN LAGUNTZEKO EGINDAKO JARDUERAK

Erakundeari genero-ikuspegia txertatzen laguntzeko egiten diren jarduera guztiak jasotzen dira atal honetan. Jarduera horiek potentzial handia dute eta beste neurri batzuen eragina handitzen laguntzen dute. Esan daiteke erakundeek egoera aldatzen laguntzen duten berdintasun-politikak gauzatu ahal izateko eta gure gizartean sexuen artean dagoen desoreka murriztuz joateko beharrezko jarduerak direla. Planean bertan, jarduera hauek nabarmentzen dira:

- Berdintasun-politiken inguruan langileak trebatzea eta sentsibilizatzea.
- Estatistikak genero-ikuspegia txertatzen laguntzeko tresna gisa hobeto erabiltzeko, haien inguruko ikerketa eta jakintza bultzatzea.
- Genero-ikuspegia txertatzen dabiltzanei aholkuak eta babesa ematea, erakundean genero-ikuspegia sartzan laguntzen duten tresnak sortu eta zabaldu behar dituzten pertsonak tartean.
- Mainstreaminga ezartzen laguntzen duten baliabideak erabiltzea eta bilatzea.


Ebaluazio honetan jasotako datuen arabera, 2006an era horretako **207 jarduera** egin ziren guztira; hots, egindako jarduera guztien laurdena inguru (%24,3) zeregin hori zuten helburu.

Grafikoan jasotako datuetan ikusten denez, zerbitzu orokorren arloan egin dira jarduera gehienak (n=73; %35,3). Hori logikoa da; izan ere, berdintasun-politikak erakundeetan garatzeko ezinbestekoak diren zerbitzuak definitzen laguntzea da arlo horren helburua. IV. Planean zehazten denez, arlo horretan sartzen dira berdintasun-politiken ardura duten pertsonentzat gomendatzen diren lan-esparruak eta lanerako helburu zehatzak.

Hemen hizpide ditugun jarduera gehienak Planeko arlo horretan biltzen diren arren, horrek ez du esan nahi gainerako arloetan genero-ikuspegia esparru edo sektore zehatz batean txertatzen laguntzeko ekintzarik gomendatzen ez denik. Hala, erakunde publikoek IV. Planeko hiru arlotan egin dituzte era horretako jarduera gehienak:

- Gizarteratzea (n=58; %28)
- Lana (n=28; %13,5)
- Hezkuntza (n=20; %9,7).

Genero-ikuspegia txertatzeko arlo bakoitzean egindako jarduerak



Jarduera horien guztien bidez, IV. Planeko helburu hauek landu dira gehienbat (n=163; %78,7):

- Erakundeari ahalmena ematea genero-ikuspegia txertatzeko (n=73; %35,3).
- Genero-ikuspegia enplegu-zerbitzuetan txertatzea (n=24; %11,6)
- Indarkeria-zikloa lehenbailehen hautematea (n=21; %10,1)
- Tratu txarrak eta sexu-erasoak jasandakoentzako arreta, laguntza eta babes eskariei modu koordinatuan, kalitatez eta eraginkortasunez erantzutea, EAEko herrietan etxeko tratu txarrei eta sexu-erasoei aurre egiteko udal-mailako protokoloak ezarriz (n=20; %9,7).
- Genero-ikuspegia txertatzea administrazio publikoetako gizarte-ekintzako arloen diagnostiko, plangintza, esku-hartze eta ebaluazioetan (n=10; %4,8).
- Lehen eta bigarren hezkuntzako eta helduen hezkuntzako ikastetxeen urteko programa guztietan hezkidetzat txertatzea (n=8; %3,9).
- Etxeko indarkeriaren kasuak ikastetxeetan hautematea eta protokolo adostu eta eraginkor bat erabiltzea kasu horiei erantzuteko (n=7; %3,4).


IV. Planean proposatutako ekintzak aztertuz gero, ikusten dugu 10 ekintzaren inguruan biltzen direla erakunde publikoek genero-ikuspegia txertatzeko egindako jarduera guztien %62,3 (n=129). Honako jarduera hauek dira:

- Berdintasunaren eta genero-ikuspegiaren inguruko trebakuntza-jarduerak teknikarientzat eta politikarientzat (n=29; %14).
- Genero-ikuspegia txertatzeko lanak koordinatzea eta bultzatzea, sektorekako nahiz zeharkako politiken arduradunei aholkuak eta babesa emanez eta berdintasun-politikak koordinatzeko egituretan txertatuz (n=27; %13).
- Genero-ikuspegia zenbateraino txertatua dagoen eta sailek politika hori aurrerago txertatzekotan nolako jarrera duten ikusteko diagnostikoa egitea (n=15; %7,2).
- Gizarte-zerbitzuetako langileei, ertzainei eta irakaskuntzako langileei emakumeen aurkako indarkeriaren inguruko prestakuntza berezia ematea, indarkeria-zikloaren hasiera garaiz hautemateko eta indarkeria fisikoa nahiz norberaren aurkako prebenitzeko (n=14; %6,8).
- Enplegu-zerbitzuetako eta erakunde laguntzaileetako langileak trebatzea, lan-munduan sartzeko prozesuko fase guztietan genero-ikuspegia txertatzen laguntzeko (n=9; %4,3).
- Ikerketak, azterketak, inkestak, ebaluazioak nahiz analisiak egitean, lagin zabalak osatzea, horietan jasotako aldagaiak sexuaren arabera aztertu eta landu ahal izateko (n=8; %3,9).

- “Berdinsarea: indarkeriaren aurkako eta berdintasunaren aldeko udalak” eratu eta sendotzea, emakumeen aurkako indarkeriari aurre egiteko jarraibide homogeenak ezarriz, lana koordinatuz eta biktimei erantzun hobea emanez (n=8; %3,9).
- Hezkuntzako langileak trebatzeko jarduerak egitea, emakumeen aurkako indarkeria hautematen ikas dezaten (n=6; %2,9).
- Etxeko indarkeriaren eta emakumeen aurkako sexu-erasoen kausak eta eragina aztertzea, halako gertakariak salatzen erabakia hartzeko garaian eragina duten faktoreekin batera, era askotako diskriminazioa jasaten duten emakumeak ez salatzen erabakia hartzea bultzatzen duten arrazoiak bereziki sakonduz (n=7; %3,4).
- Etxeko indarkeria eta sexu-erasoak daudenean nola jokatu behar den dioten protokoloak garatzeko jarraibideak jasotzen dituzten gidak egitea (n=6; %2,9).

Genero-ikuspegia beren jardueretan txertatzeko erakunde publikoek erabilitako tresnak jasotzen dira ondorengo grafikoan:

Erabilitako esku-hartze tresnak



Ikusten denez, hauek izan dira jarduera nagusiak: prestakuntza (n=72; %34,8); jakintza sortzea (n=52; %25,1) eta baliabideak eta zerbitzuak sortzea eta egokitzea (n=49; %23,7). Ondorengo lerroetan zehazkiago azalduko ditugu jarduera bakoitzaren ezaugarriak, esku hartzeko erabilitako tresnaren arabera.

Jakintza sortzea

Jakintza sortzeko 52 jarduera egin dira guztira, eta horietatik 14 (%26,9) emakumeen egoera zertan den jakiteko diagnostikoak izan dira. Eraitza horiei jarraiki, jarduera hauek egin dira:

- Eraitzen berri eman (n=5).
- Emakumeen eta gizonen arteko berdintasun-plan bat prestatu (n=3)
- Berdintasunerako neurriak jarri zenbait programa eta proiektutan (n=3).
- Erantzunik ez (n=3).


Egindako 52 jardueretatik, %59,6 (n=31) Planean jasotako ekintzetan oinarritu da:

- Genero-ikuspegia zenbateraino txertatua dagoen eta sailek politika hori aurrerago txertatzekotan nolako jarrera duten ikusteko diagnostikoa egitea (n=9; %17,3).
- Ikerketak, azterketak, inkestak, ebaluazioak nahiz analisiak egitean, lagin zabalak osatzea, horietan jasotako aldagaiak sexuaren arabera aztertu eta landu ahal izateko (n=8; %15,4).
- Etxeko indarkeriaren eta emakumeen aurkako sexu-erasoen kausak eta eragina aztertzea, halako gertakariak salatzeke erabakia hartzeko garaian eragina duten faktoreekin batera, era askotako diskriminazioa jasaten duten emakumeak ez salatzeke erabakia hartzera bultzatzen duten arrazoietan bereziki sakonduz (n=7; %13,5).
- Datu-base homogeenak prestatzea eta garatzea, lanerako informazio eta orientazioan, lanerako prestakuntzan eta lan-prestakuntzaren alorrean diharduten erakundeentzako sexuen araberako banatutako estatistikak bildu ahal izateko (n=4; %7,7).

- Eskolako eta eskolaz kanpoko kirolean diharduten nesken eta mutilen kopuruen artean halako aldea egotea eragiten duten faktoreak ikertzea, bereziki batzuen eta besteen parte-hartzea gizartearen genero-eraketak baldintzatzen duen kasuetan (n=3; %5,8).

Ondorengo grafikoan ikusten denez, administrazio orokorrak egin ditu jakintza alorreko jarduerak gehien (n=32; %61,5).

Genero-ikuspegia txertatzen laguntzeko administrazioaren hiru mailek egindako jakintza-jarduerak



■ Administrazio Orokorra (n=32) ■ Foru-Administrazioa (n=7) ■ Toki-Administrazioa (n=13)


Administrazio orokorraren barruan, 12 erakunde publikok egin dituzte horrelako jarduerak, eta horietatik 4k egin dituzte jarduerak guztien %59,4 (n=19): Emakunde (n=6); Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Saila (n=5); Osasun Saila eta Barne Saila (n=4, hurrenez hurren).

Aldundiek egindako jarduerak ia guztiak Bizkaikoak egin ditu (n=6).

Udal-administrazioei dagokienez, 8 udalek eta Eudelek egin dituzte horrelako jarduerak: Eudel (n=1); Bilbo (n=3); Tolosa (n=2); Zalla (n=2); Barakaldo, Galdakao, Laudio, Lekeitio eta Ondarroa (n=1).

52 jarduera horietako 18rako (%34.6) 241.926,85 € gastatu zituzten erakundeek. Gainerako kasuetan, ez zen batere gasturik egin edo ez da haien berri eman, behinik behin. Egindako gastu osoa honela banatu da administrazioko hiru mailen artean:

Administrazioaren hiru mailek zenbat gastatu duten genero-ikuspegia txertatzen laguntzeko jakintza-jardueretan



Era horretako jarduera gehien antolatu dituzten administrazioko bi mailek (orokorrean eta udaletan) gastatu dute dirurik gehien horrelako jarduerak egiten.

Sentsibilizazioa, informazioa eta jendarteratzea


Genero-ikuspegia administrazioetan txertatzen laguntzeko, era horretako 23 jarduera egin dira guztira. %60,8 (n=14) IV. Planean zehaztutako 5 ekintza hauen artean banatu dira:

- Gizarte-alorreko plangintza eta esku-hartzeetan genero-ikuspegia txertatzeko jardunbide onak jasotzen dituzten materialak prestatu, gizarte-ekintzako arloetan banatzeko (n=4).
- Gizonen eta emakumeen arteko berdintasunari eta esku-hartze programetan genero-ikuspegia txertatzeak duen garrantziari buruzko sentsibilizazioa eta informazioa (n=3).
- Hezkuntza-alorreko langileei emakumeen aurkako indarkeria hautemateko gaitasunak ematea (n=3).

- Emakume etorkinen baldintzen, egoeraren eta beharren gaineko azterketaren emaitzak zabaltzea sektore horrekin eta talde horrekin lan egiten duten teknikarien eta erakundeen artean, haien jardueretan genero-ikuspegia kontuan har dezaten (n=2).
- Etxeko tratu txarren aurrean erantzuteko protokoloaren edukia zabaltzea osasun-alorreko eragileen artean, etengabe hobetzeko neurriekin eta ebaluazioen emaitzekin batera (n=2).

Ondorengo grafikoan ikusten denez, udal-administrazioak egin ditu jakintzaren inguruko jarduera gehien (n=12; %52,2).

Genero-ikuspegia txertatzen laguntzeko administrazioaren hiru mailek egindako sentsibilizazio-jarduerak



Administrazio orokorraren barruan, hiru erakunde publikok antolatu dituzte era horretako jarduerak. Honako hauek: Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Saila (n=4); Osasun Saila (n=2); Emakunde (n=2).

Foru-administrazioaren barruan, Arabako eta Gipuzkoako aldundiek antolatu dituzte horrelako jarduerak (n=2 eta 3, hurrenez hurren).

Udal-administrazioei dagokienez, zazpi udalek antolatu dituzte era horretako jarduerak. Abadiño (n=3), Zalla (n=2), Balmaseda, Bilbo, Ermua, Gueñes eta Getaria (n=1).


Jarduera horietan parte hartu duten administrazioako langile-kopuruak erakusten digunez (14 jarduerari buruzko datuak ditugu), guztira, 2.109 lagunek hartu dute parte, 1.392 emakumek

(%66) eta 717 gizonetik (%34). Honako koadro honetan, jarduera horietan parte hartu duten langileak zein taldeetakoak diren zehazten da:

TALDEAK	emak.	gizon.	Guztira
ADMINISTRATIO OROKORREKO ARDURADUN POLITIKOAK	211	134	345
FORU-ADMINISTRATIOKO ARDURADUN POLITIKOAK	13	3	16
UDAL-ADMINISTRATIOKO ARDURADUN POLITIKOAK	59	42	101
ADMINISTRATIO OROKORREKO ARDURADUN TEKNIKOAK	11		11
FORU-ADMINISTRATIOKO ARDURADUN TEKNIKOAK	6	9	15
UDAL-ADMINISTRATIOKO ARDURADUN TEKNIKOAK	55	40	95
LAN ETA PRESTAKUNTZA ALORREKO LANGILEAK	475	418	893
ZUZENBIDE-ALORREKO LANGILEAK	2	3	5
POLIZIAKO LANGILEAK	10	18	28
IKASTETXEETAKO ETA HEZKUNTZA- ZERBITZUETAKO LANGILEAK	299	13	312
OSASUN-ZERBITZUETAKO LANGILEAK	23	1	24
GIZARTE-ZERBITZUETAKO LANGILEAK	33	4	37
KULTURAREN ALORREKO LANGILEAK	73	19	92
HEDABIDEETAKO LANGILEAK	24		24
EMAKUMEEN ETA GIZONEN ARTEKO BERDINTASUNAREN ALORREKO LANGILEAK	98	13	111
Guztira	1.392	717	2.109

Guztira, 23 jarduera egin dira eta, horietako 15erako (%65,2), 51.300,93 € gastatu dituzte erakundeek; gainerakoetan, gastua 0 izan zen, edo ez dute daturik eman. Gastu osoa honela banatu zen administrazioaren hiru mailen artean:

Administrazioaren hiru mailek zenbat gastatu duten genero-ikuspegia txertatzen laguntzeko sentsibilizazio-jardueretan



Foru-administrazioak jarri du dirurik gehien genero-ikuspegia administrazioan txertatzen laguntzeko sentsibilizazio eta informazioa jarduerak antolatzeko.

Prestakuntza


Administrazioetan genero-ikuspegia txertatzen laguntzeko, era horretako 72 jarduera egin dira. %84,7 (n=61) IV. Planean jasotako ekintza hauen artean banatu da:

- Emakumeen eta gizonen arteko berdintasunari buruzko eta genero-ikuspegia txertatzeko moduari buruzko prestakuntza (n=24).
- Gizentasunei eta indarkeriari buruzko informazio berezia hezitzaileentzat, gizarte-laguntzaileentzat eta gizonekin lan psiko-soziala egiten duten langileentzat, gizon horiek erreferentzia-eredu berriak izan daitezen (n=11).
- Enplegu-zerbitzuetako eta erakunde laguntzaileetako langileak trebatzea, lan munduan sartzen laguntzeko prozesuko fase guztietan genero-ikuspegia txerta dezaten. Honako fase hauek dira zehazki: informatzea, trebatzea, orientatzea, lan-munduratzeko laguntza ematea eta jarraipena egitea, enpresak sustatzea eta norbere kasa aritzea (n=8).

- Aisialdiko eta gizarte- eta kultura-animazioko zuzendari eta begiraleak trebatzea, beren jarduerak prestatu, dinamizatu nahiz ebaluatzean genero-ikuspegia kontuan har dezaten (n=3).
- Hezkuntza-arloko langileekin trebakuntza-jarduerak egitea, emakumeen aurkako indarkeria hautemateko gaitasunak izan ditzaten (n=3).
- Berritzeguneetako langileei hezkidetzarako trebakuntza ematea (n=3).
- Berritzeguneetako irakasleek eta langileek genero-indarkeriari buruzko prestakuntza dutela ziurtatzea (n=3).
- Administrazio publikoetako gizarte-ekintzarako arloetan dabiltzan teknikarientzako prestakuntza-jarduerak antolatzea, diagnostikoak, plangintzak, esku-hartzeak eta ebaluazioak egitean genero-ikuspegia kontuan har dezaten (n=3).
- Etxeko indarkeria nahiz sexu-erasoak daudenean zer egin erabakitzeko, udaletako teknikariei eta, halakorik badago, berdintasunerako eragileei udal-mailako protokoloak egiteko prestakuntza ematea (n=3).

Prestakuntza alorrean egindako 72 jardueretatik, %19,4tan (n=14) parte-hartzailearen bizi-eremua, familia- eta lan-bizitza bateratzeko neurriak aztertu ziren. Halere, bost kasutan bakarrik zehaztu dira aztertutako neurriak: lanaldiaren barruan prestakuntza ematea (n=3), internet bidez ikastaro bat ematea (n=1), lanaldi barruan haurtzaindegia eta prestakuntza (n=2). Ondorengo grafikoan ikustenenez, administrazio orokorrak eta udal-administrazioek antolatu dituzte prestakuntza-jarduera gehien (biek n=30; %41,7).

Genero-ikuspegia txertatzen laguntzeko administrazioaren hiru mailek egindako prestakuntza-jarduerak



Administrazio orokorraren barruan, 11 erakunde publikok antolatu dituzte horrelako jarduerak. Halere, hiru laurden inguru (n=22) honako bost erakunde hauek egin dituzte: Emakunde (n=7); Justizia, Lan eta Gizarte Segurantza Saila (n=4); Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Saila (n=4); EHAA (n=4) eta Osasun Saila (n=3).

Foru-administrazioen artean, jarduera guztien erdia Arabakoak egin ditu (n=6) eta gainerakoak Bizkaikoak eta Gipuzkoakoak (n=4 eta 2, hurrenez hurren).

Bestalde, udal-administrazioen kasuan, 18 udaletan antolatu dituzte era horretako jarduerak, eta Bilboko eta Gasteizko Udalak egin dituzte prestakuntza-jardueren heren bat baino gehiago (n=6 eta n=5, hurrenez hurren). Gainerako 16 udalek jarduera bat edo bi egin dituzte.


Jarduera hauetan parte hartu duten administrazioiko langile kopuruak erakusten digunez (12 jarduerari buruzko datuak ditugu), guztira, 4.172 lagunek hartu dute parte, 1.836 emakumek (%44) eta 2.336 gizonen (%56). Honako koadro honetan zehazten da jarduera horietan parte hartu duten langileak zein taldetakoak diren:

TALDEAK	emak.	gizon.	Guztira
ADMINISTRAZIO OROKORREKO ARDURADUN POLITIKOAK	3		3
FORU-ADMINISTRAZIOKO ARDURADUN POLITIKOAK	20	6	26
UDAL-ADMINISTRAZIOKO ARDURADUN POLITIKOAK	37	21	58
ADMINISTRAZIO OROKORREKO ARDURADUN TEKNIKOAK	102	49	151
FORU-ADMINISTRAZIOKO ARDURADUN TEKNIKOAK	69	9	68
UDAL-ADMINISTRAZIOKO ARDURADUN TEKNIKOAK	147	45	192
LAN ETA PRESTAKUNTZA ALORREKO LANGILEAK	122	36	158
POLIZIAKO LANGILEAK	227	1.859	2.086
IKASTETXEETAKO ETA HEZKUNTZA-ZERBITZUETAKO LANGILEAK	272	92	364
OSASUN-ZERBITZUETAKO LANGILEAK	483	180	663
GIZARTE-ZERBITZUETAKO LANGILEAK	353	39	392
EMAKUMEEN ETA GIZONEN ARTEKO BERDINTASUNAREN ALORREKO LANGILEAK	1		1
Guztira	1836	2.336	4.162

2006an prestakuntza jaso duten administrazioko langileen erdia poliziak dira (n=2.086). Osasun alorrean, gizarte zerbitzuetan eta osasun-zerbitzuetan prestakuntza jaso duten langileen kopurua ere handia izan da.

Guztira, 72 jarduera egin dira eta, horietako 43rako (%59,7), 117.402,87 € gastatu dituzte erakundeek; gainerakoetan, gastua 0 izan zen, edo ez dute daturik eman. Gastu osoa honela banatu da administrazioko hiru mailen artean:

Administrazioaren maila bakoitzak zenbat gastatu duen genero-ikuspegia txertatzen laguntzeko prestakuntza-jardueretan



Administrazio orokorrak jarri du diru gehien genero-ikuspegia administrazioan txertatzen laguntzeko prestakuntza-ekintzak egiteko.


Baliabideak eta zerbitzuak

Administrazioko langileei genero-ikuspegia txertatzen laguntzeko baliabideak eta zerbitzuak sortzeko eta egokitzeko 49 jarduera egin dira. Jarduera guztien %77,6k (n=38) IV. Planeko jarduera hauekin zuen zerikusia:

- Genero-ikuspegia txertatzeko lanak koordinatzea eta bultzatzea, ondorengo politiken arduradunei berdintasun-politikak garatzeko aholkuak eta babesa emanez: garapenerako lankidetzak, gazteria, euskara, ingurumena, presidentzia, kontratazioa, zuzenbide-zerbitzuak, ogasuna eta egokitzat jotzen den zeharkako beste edozein plan edo politika (n=25).
- Etxeko tratatu txarrei eta sexu-erasoei erantzuteko protokoloak sortzeko gidak eta jarraibideak prestatzea (n=5).
- “Berdinsarea: indarkeriaren aurkako eta berdintasunaren aldeko udalak” eratu eta sendotzea, emakumeen aurkako indarkeriari aurre egiteko jarraibide homogeneousak ezarriz, lana koordinatuz eta biktimei erantzun hobea emanez (n=8).

Era horretako jardueren erdia baino gehiago administrazio orokorrak egin ditu (n=26; %53), eta herena baino gehiago udal-administrazioek (n=19; %38,8).

Genero-ikuspegia txertatzen laguntzeko Administrazioaren hiru mailek baliabideak eta zerbitzuak sortzeko eta egokitzeko egin dituzten jarduerak



Administrazio orokorraren barruan, zortzi erakunde publikotan egin dituzte horrelako jarduerak, eta Emakundek egin ditu horrelako jarduera gehien (n=17; %65,4).

Foru-administrazioen artean, Arabakoak egin ditu erdia (n=2) eta Bizkaiak eta Gipuzkoak bana antolatu dituzte (n=1).

Bestalde, udal-administrazioan, zortzi udalek antolatu dituzte era horretako jarduerak. Gasteizko, Abadiñoko, Ermuko eta Mungiako udalek antolatu dituzte jarduera guztien %78,9 (n=15).


Genero-ikuspegia txertatzen laguntzeko babesak eta aholkua jaso duten administrazio langileen kopuruari buruz jaso ditugun datuak zehazten dira ondorengo koadroan (lau jarduerari buruzko informazioa jaso dugu). Koadroan ikusten denez, administrazio maila guztietako 491 lagunek jaso dute zerbitzua, 337 emakumek (%68,8) eta 154 gizonen (%31,4). Ondorengo koadroan zehazten da zein taldeetakoak ziren langile horiek.

TALDEAK	emak.	gizon.	Guztira
ADMINISTRAZIO OROKORREKO ARDURADUN POLITIKOAK	205	133	338
UDAL-ADMINISTRAZIOKO ARDURADUN TEKNIKOAK	96	16	112
IKASTETXEETAKO ETA HEZKUNTZA-ZERBITZUETAKO LANGILEAK	35	5	40
EMAKUMEEN ETA GIZONEN ARTEKO BERDINTASUNAREN ALORREKO LANGILEAK	1		1
Guztira	337	154	491

Administrazio orokorreko arduradun politikoek eta udal-administrazioetako arduradun teknikoek parte hartu dute gehien.

Guztira, 49 jarduera egin dira; horietako 13rako (%26,5), 138.825,76 € gastatu zituzten erakundeek; gainerakoetan, gastua 0 izan zen, edo ez dute daturik eman. Gastu osoa honela banatu zen administrazioko hiru mailen artean:

Genero-ikuspegia txertatzen laguntzeko Administrazioaren maila bakoitzak prestakuntza-jardueretan zenbat gastatu duen



Emandako informazioaren arabera, administrazioan genero-ikuspegia txertatzen laguntzeko baliabide eta zerbitzuetan gastatutako diru guztiaren %93,2 administrazio orokorrak jarri du.

Arauk sortzea eta egokitzea


10 jarduera egin dira guztira, eta honako ekimen hauek egin dira jarduera horien barruan:

- Planean, beste ekintza bat gomendatzen da, “lan-esparruetan ematen den berdintasunerako prestakuntza homologatzea”, eta Justizia, Lan eta Gizarte Segurantza Saileko Enplegu eta Prestakuntza Zuzendaritzak emakumeen eta gizonen berdintasunari buruzko prestakuntza emateko dauden baliabideen katalogoa prestatu du lan-mundura sartzen laguntzeko zerbitzuetan erabiltzeko.
- 2005ean eta 2006ean argitaratutako aginduen bidez, 155/2002 Dekretua garatzeko laguntzen berri eman zen. Immigrazio alorrean jarduerak egiteko laguntzak arautzen ditu dekretu horrek, eta honako irizpide hau zehazten da egitasmoei laguntzak emateko haztapena egiteko: “genero-ikuspegia txertatzea, gizonen eta emakumeen egoerak, baldintzak eta beharrak aintzakotzat hartuta”.
- EAEko Immigrazioaren II. Planean, genero-ikuspegia txertatu da, emakume etorkinentzat ekintza positiboak proposatuz, zein ekintza orokorrak emakume etorkinen egoera berezira egokituz.
- Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako ikastetxeekin, Harresiak Apurtuz elkartearekin eta Euskal Eskola Publikoko Gurasoen Konfederazioarekin sinatutako hitzarmenetan, genero-ikuspegia txertatzeko eta hizkera sexistarik ez erabiltzeko baldintza bereziak sartu dira.
- Gauza bera egin da “La Mirada del Sur/Hegoaldearen ikuspuntua” jardunaldiak antolatzeko deitutako kanpo-kontratuarekin ere.
- Gizarte Gaietako Zuzendaritzak sinatzen dituen lankidetzak-hitzarmenetan bete beharreko baldintza bati eutsi zaio: baldintza horrek eskatzen du erakunde laguntzaileek egindako dokumentuetan hizkera sexistarik ez erabiltzea eta lantzen dituzten gaietan emakume eta gizonen egoera, baldintza eta behar bereziak aintzat hartzea.
- Egailani atxikitako Lanbideko langileen hitzarmen kolektiboan berdintasunerako baldintzak sartu dira.

- “Lanbide”rako langile berriak kontratatzean, generoari buruz duten jakintza aintzakotzat hartu da.
- “Lanbide”ko barne-prestakuntza kudeatzeko prozeduretan trebakuntza-planak prestatu dira.
- Berdintasunaren alorrean laguntza teknikoa emateko enpresak nahiz banakako langileak homologatzeko araudia prestatu da.

Administrazio orokorrak eta aldundiek jakinarazi dute aipatutako jarduera horiek egin diren edo egoki bete diren (n=9; %90 eta n=1; %10, hurrenez hurren).

Genero-ikuspegia txertatzen laguntzeko Administrazioaren maila bakoitzak arauak sortzeko eta egokitzeko zein jarduera egin dituen



Administrazio orokorraren barruan, hiru erakunde publikok antolatu dituzte era horretako jarduerak. Honako hauek: Justizia, Lan eta Gizarte Segurantza Saila (n=4); Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Saila (n=4); eta Emakunde (n=1).

Aldundien artean, Bizkaikoak egin du gauzatu den jarduera bakarra (n=1).

Guztira, 10 jarduera egin dira, baina horietako bakar batek ez dio kostu osagarririk ekarri jarduera egin zuen erakundeari.

Jarraipen-mekanismoak sortzea eta egokitzea

Barne Sailak bakarrik jakinarazi du jarraipen-jarduera bat egin duela: sei hilean behin (urtarrilean eta uztailean) eta urtean behin (urtarrilean) etxeko indarkeriarekin eta sexu-askatasunaren aurkako delituekin zerikusia duten lege-urraketak jasan dituztenen estatistikak bidali dizkio Emakunderi, eta aurreko aldiko datuekin alderatu dira datuok. Jarduera horrek ez dio inolako gastu osagarririk eragin erakundeari.


6. EMAKUMEEN ETA GIZONEN ARTEKO BERDINTASUNA LORTZEKO SEKTOREKAKO NAHIZ ZEHARKAKO POLITIKAK

2006an botere publikoek honako arlo hauetan egindako jarduerak jasotzen dira atal honetan: aukera-berdintasuna eta tratu-berdintasuna sustatzea, emakumeek oro har eta era askotako diskriminazioa jasateko edo gizartetik baztertuta gelditzeko arriskua duten emakumeek bereziki bizi izandako diskriminazio-egoerez jabetzea, haien berri zabaltzea eta halakoak ezabatzea.

Erakunde publikoek jakinarazi dutenez, horrelako **587 jarduera** egin dituzte 2006an; hots, egindako jarduera guztien %68,9 izan dira mota horretakoak.

Grafikoan ikusten denez, egindako jarduera guztien %92,4 Planeko lau arlo hauei zegokien: Zerbitzu orokorrak (n=164; %27,9); Gizarteratzea (n=121; %20,6); Kultura (n=160; %27,3); Lana (n=95; %16,6).

Gizonen eta Emakumeen tratu- eta lan-aukeren berdintasuna lortzeko arlo bakoitzean egindako jarduerak



Erakunde publikoek IV. Planean zehaztutako 59 helburutan hartu dituzte neurriak, eta horietatik 11ren inguruan antolatu da jarduera guztien %66,1 (n=388).

- Emakumeen arte- eta kultura-sorkuntzak areagotzea, baita gizartearen ikuspegi ez-sexista ematen dutenak ere (n=83; %14,1).
- Berdintasuna bultzatzen duten elkarteak ugaritzea eta bultzatzea (n=61; %10,4).
- Gizarteak berdintasun-politikan duen interes-maila eta inplikazioa areagotzea (n=50; %8,5).
- Pertsonen duintasuna haien sexuarekin lotzen duten irudi eta edukiak ezabatzea, baita emakumeen aurkako indarkeria justifikatzen, arintzen edo bultzatzen dutenak ere (n=43; %7,3).
- Pobrezia ekonomikoa izanda, baztertuta gelditzeko arriskua dutenentzako baliabideak egokitzea, egoera horretan dauden emakumeen baldintzak eta egoera hobetzen laguntzeko (n=35; %6).
- Indarkeria-zikloa lehenbailehen hautematea (n=32; %5,6).
- Administrazioak sortutako dokumentazioa berrikustea eta egokitzea, hizkera sexistarik ez erabiltzeko (n=22; %3,7).

- Administrazio publikoetan eta sektore pribatuko enpresetan, emakumeen eta gizonen lan-baldintzak parekatzea, langileen proportzio handienak biltzen dituzten jarduera-adarrei lehentasuna emanda (n=20; %3,4).
- Erantzukizunak banatzea eta zaintzearen etika sustatzen dituzten gizartearen eta kulturaren arloko guneak areagotzea (n=15; %2,6).
- Industriako sektore tradizionalak lanpostu teknikoetan gizonen eta emakumeen kopuruen artean dagoen aldea murriztea, emakumeen parte-hartzea handituz (n=14; %2,4).
- Droga-mendekotasuna eta baztertuta gelditzeko arriskua dituztenentzako baliabideak egokitzea, egoera horretan dauden emakumeen baldintzak eta egoera hobetzen laguntzeko (n=13; %2,2).


Aukera- eta tratu-berdintasuna bultzatzeko, eta emakumeek jasandako diskriminazio-egoerez jabetuta haien berri eman eta halakoak ezabatzeko asmoz, erakunde publikoek IV. Planean zehaztutako 195 ekintza egin dituzte. Horietatik 18 landu dira egindako jardueren erdian (n=306; %52,1).

- Berdintasun-politikak zabaltzeko prozesuak areagotzea, besteak beste, honako hauen bidez: komunikazio-kanpainak antolatuz, hedabideetan berdintasunarekin duten gaiak gehiago azalduz, berdintasun-politikak bultzatzen dituzten diagnostikoen inguruan hitzaldiak, jardunaldiak eta biltzarrak antolatuz, informatzeko aldizkariak argitaratuz... (n=47; %8).
- Sentsibilizazio-kanpainak egitea honako hauen bitartez: herritarren artean emakumeen aurkako indarkeriaren sustraiak zein diren azalduz eta indarkeria hori gizarlean, kulturaren eta hedabideetan nola agertzen den erakutsiz, irudi eta eduki sexistak identifikatuz eta dauden bideak erabilita jendea halakoak salatzea bultzatuz (n=41; %7).
- Emakume sortzaile eta artisten topaketak eta jardunaldiak antolatzea, haien lana balioztatzeke, esperientziak trukatzeko, egiteko moduak sistematizatzeke eta sareak eratzeke (n=31; %5,3).
- Berdintasunaren alde diharduten emakume-elkarteentzako diru-laguntzen programak (n=26; %4,4).
- Administrazioak sortutako dokumentazioa berrikustea eta egokitzea, hizkera sexistarik ez erabiltzeko (n=22; %3,7).
- Laguntza ekonomiko eta sozial osagarriak ematea, pobreziaren feminizazio-prozesuen ondorioz baztertuta gelditzeko arriskua duten emakumeen baldintzak hobetzen laguntzeko (n=20; %3,4).
- Emakumeentzako garapen pertsonaleko ikastaroak, maila guztietan (n=18; %3,1).

- Emakumeen kultura-sorkuntzaren inguruko eztabaida publikoa bultzatzea, eztabaidarako foroak eta topaketak antolatuz, emakumeek kulturari egindako ekarpen historikoaren berri emateko eta emakumeek historian zehar kultura sortzeko erabilitako bideak eta moduak balioztatzeko (n=16; %2,7).
- Herritarrak sentsibilizatzeko kanpainak egitea, indarkeria-zikloaren berri emateko eta indarkeria hori jasaten duten emakumeentzako baliabideen berri emateko, hala indarkeria lehenbailehen hauteman eta haiek ere laguntza-eragile informalak izan daitezen (n=12;%1).
- Indarkeria-zikloaren lehen fasean (hitzeko indarkeria eta indarkeria psikologikoa) dauden emakumeentzako arreta-zerbitzuak eta etxez etxeko laguntza-zerbitzuak sortzea, baliabideak eta laguntza psiko-soziala emanaz bigarren fasera (indarkeria fisikoa) pasatzea edo depresioak, norberaren buruaren aurkako indarkeria eta halakoak saihesteko (n=11; %1,9). Emakumeentzako aholku juridiko eta psikologikoa emateko zerbitzuak (n=11; %1,9).
- Berdintasunaren alde diharduten elkarte, talde eta eragileek beren esperientziak trukatzeko, elkartzeko eta elkarrekin gogoeta egiteko jardunaldiak antolatzea (n=9; %1,5).
- Administrazioak kultura- eta arte-alorreko sorkuntzak zabaltzeko antolatzen dituen jarduera guztietan emakumeek egindako lanak ere sartzeari, bai eta emakumeek kultura-munduari egindako ekarpena jasotzen duten lanak ere (n=9; %1,5).
- Emakumeen eta gizonen zereginak dibertsifikatzeko tailerrak, batzuek eta besteek beren gaitasun eta trebeziak lantzeko gizarteak sortutako genero-ereduak gainditzeko (n=8; %1,4).
- Enpresa, sindikatu eta enpresa-elkarteentzat laguntza batzuek finkatzea berdintasun-planak egiteko eta erakunde horiek gai horretako adituak kontratatuzeko (n=7; %1,2).
- Orain dauden harrera-etxeetako segurtasun-sistemak hobetzeko laguntza ekonomikoak handitzea, eta laguntza- eta babes-zerbitzuak emango dituzten langileak kontratatzea (n=6; %1).
- Jabekuntza-eskolak sortzea bultzatzea (n=6; %1).
- Diru-laguntzak emateko deialdiak ateratzean genero-ikuspegia eta diru-laguntza jasoko duten erakundeetan berdintasun-politikarik izatea irizpidetzat hartzea (n=6; %1).

Honako grafikoan laburbildu dugu zein tresna erabili diren aukera- eta tratu-berdintasuna sustatzeko eta emakumeek jasandako diskriminazio-egoerez jabetzeko, haien berri zabaltzeko eta halakoak ezabatzeko:

Esku-hartze tresnak



Ikusten denez, honako hauek izan dira jarduera nagusiak: sentsibilizazioa, informazioa eta jendarteratzea (n=256; %41,9) eta baliabideak eta zerbitzuak sortzea eta egokitzea (n=202; %34,4). Ondorengo lerroetan zehazkiago azalduko ditugu jarduera bakoitzaren ezaugarriak, esku hartzeko erabilitako tresnaren arabera.

Jakintza sortzea

Egindako 38 jardueretatik, %44,7 (n=17) Planean jasotako ekintza hauetan oinarritu da:


- Negoziazio kolektiboan berdintasun-politikak txertatzeko egindako esperientziak, gidak eta metodologiak eta enpresetan berdintasuna bultzatzeko erabilitako lan-metodologiak biltzea, zabaltzea eta gizarte-eragileen esku jartzea (n=3).
- Emakumeen aurkako indarkeria-zikloa garaiz prebenitzeko jardunbide egokien inguruan ikertzea eta ikerketa horiek sistematizatzea (n=3).

Emakumeak beren herrietan segurutzat jotzen ez dituzten leku jakinak identifikatzeko diagnostiko bat egitea (garraio publikoak barne). Horretarako, herriko emakumeek hartu behar dute parte. Neurriak lehenbailehen hartzea eskatzen duten lekuak zehaztu beharko dira (n=3).

- Genero-diagnostiko bat egin behar da emakumeen lan-baldintzetan egon litezkeen diskriminazioak eta desorekak identifikatzeko, finkatutako gutxieneko edukiak betez eta martxan jarritako jardueretan eraginaren jarraipena eta ebaluazioa egiteko behar diren adierazleak zehaztuz (n=2).
- Emakumeek kultura-ondareari egindako ekarpen historikoa ikertzea eta sistematizatzea, eta gizonek eta emakumeek historian zehar kultura sortzeko erabilitako bide desberdinak aztertzea, euskal kulturaren arreta berezia jarritz (n=2).
- Prostituzioaren inguruan ekintza-plan bat prestatzea; aldeztu aurretik prostituzioan dabilzan emakumeen baldintzei, egoerei eta beharrei buruz diagnostiko bat egingo da esparru horretan diharduten gainerako talde eta administrazioekin elkarlanean (n=2).
- Herritarren iritzia biltzea, metodologia kuantitatiboak (inkestak) eta kualitatiboak (mahai-inguruak, eztabaidak, lan-taldeak) erabiliz (n=2).

Ondorengo grafikoan ikusten denez, administrazio orokorrak eta udal-administrazioek antolatu dituzte era horretako jarduerarik gehien (n=16; %42,1 eta n=17; %44,7, hurrenez hurren).

Gizonen eta emakumeen tratua eta aukera-berdintasuna sustatzeko Administrazio-maila bakoitzak zer jakintza-jarduerak egin dituen



■ Administrazio Orokorra (n=16) ■ Foru-Administrazioa (n=5) ■ Toki-Administrazioa (n=17)


Administrazio orokorraren barruan, 10 erakunde publikok antolatu dituzte era horretako jarduerak. Jardueren erdia Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Sailak (n=4) eta Emakundek (n=4) antolatu dituzte.

Foru-administrazioaren barruan, Arabako eta Bizkaiko aldundiek antolatu dituzte horrelako jarduerak (n=3 eta 2, hurrenez hurren).

Bestalde, udal-administrazioan, hamabi udalek antolatu dituzte era horretako jarduerak, eta erdia baino gehiago Gasteizko (n=4) eta Bilboko (n=3) udalek antolatu dituzte.

38 jarduera egin dira eta, horietako 26rako (%68.4) 389.567,10 € gastatu dituzte erakundeek. Gainerako kasuetan, ez zen batere gasturik egin edo ez da haien berri eman, behinik behin. Egindako gastu osoa honela banatu da administrazioko hiru mailen artean:

Administrazio-maila bakoitzak zenbat gastatu duen gizonen eta emakumeen tratu- eta aukera- berdintasuna sustatzeko jakintza-jardueretan



Era horretako jarduera gehien antolatu dituzten administrazioko bi mailetan (orokorrean eta udaletan) gastatu dute dirurik gehien halako jarduerak egiten.


Sentsibilizazioa, informazioa eta jendarteratzea

Guztira, 246 jarduera egin dira alor horretan, eta %68,7 (n=169) IV. Planean jasotako sei ekintza hauen barruan sartzen da:

- Berdintasun-politikak zabaltzeko prozesuak areagotzea komunikazio-kanpainak antolatuz; hedabideetan berdintasunarekin duten gaiak gehiago azaltzea; antolatzea berdintasun-politikak bultzatzen dituzten diagnostikoen inguruan hitzaldiak, jardunaldiak eta biltzarrak; informatzeko aldizkariak argitaratzea... (n=47; %19,1).
- Sentsibilizazio-kanpainak egitea honako hauen bitartez: herritarren artean emakumeen aurkako indarkeriaren sustraiak zein diren azalduz eta indarkeria hori gizartean, kulturen eta hedabideetan nola agertzen den erakutsiz, irudi eta eduki sexistak identifikatuz eta dauden bideak erabiliz jendea horrelakoak salatzea bultzatuz (n=41; %16,7).
- Emakume sortzaile eta artisten topaketak eta jardunaldiak antolatzea, haien lana balioztatzeko, esperientziak trukatzeko, egiteko moduak sistematizatzeke eta sareak eratzeko (n=31; %12,6).
- Administrazioak sortutako dokumentazioa berrikustea eta egokitzea, hizkera sexistarik ez erabiltzeko (n=22; %8,9).
- Emakumeen kultura-sorkuntzaren inguruko eztabaida publikoa bultzatzea, eztabaidarako foroak eta topaketak antolatuz, emakumeek kulturari egindako ekarpen historikoaren berri emateko eta emakumeek historian zehar kultura sortzeko erabilitako bideak eta moduak balioztatzeke (n=16; %6,5).
- Herritarrak sentsibilizatzeko kanpainak egitea, indarkeria-zikloaren berri emateko eta indarkeria hori jasaten duten emakumeentzako baliabideen berri emateko, hala indarkeria lehenbailehen hauteman eta haiek ere laguntza-eragile informalak izan daitezen (n=12; %4,9).

Udal-administrazioak egin ditu sentsibilizatzeko jarduera gehien (n=153; %62,2).

Administrazio-maila bakoitzak gizonen eta emakumeen tratu- eta aukera-berdintasuna sustatzeko egindako sentsibilizazio-jarduerak



Administrazio orokorraren barruan, 11 erakunde publikotan egin dituzte horrelako jarduerak, eta bosten artean egin dute jarduera guztien %82,5. Honako hauek dira: Emakunde (n=31); Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Saila (n=7); Justizia, Lan eta Gizarte Segurantzza Saila (n=6); Barne Saila (n=4) eta Lehendakaritza (n=4).

Foru-administrazioaren barruan, Arabako eta Bizkaiko aldundiek antolatu dituzte horrelako jarduera gehienak (n=12 eta 15, hurrenez hurren).

Bestalde, udal-administrazioan, 43 udalek antolatu dituzte sentsibilizazio-jarduerak. Jarduera guztien %62,1 15 udalek antolatu dute: Abadiño (n=15); Zalla (n=9); Bilbo (n=9); Getaria (n=7); Gasteiz, Donostia, Laudio, Arrigorriaga, Mungia (n=6); Ondarroa (n=5), eta Abanto-Zierbena, Durango, Elorrio, Ermua eta Azkoitia (denek n=4).

Jarduerak ezaugarri bereziak dituzten taldeetara egokitzeari dagokionez, 22 sentsibilizazio-jardueratan egin dira egokitzapenak (n=147): 8 jarduera etorkinentzat egokitu dira eta beste 14, ezinduentzat.

Familia eta lana bateratzeko beharra zekarten 140 sentsibilizazio-jarduera egin dira, eta horrelako neurriak 45 jardueretan hartu dira: ordutegiak egokitzea (n=20) eta haurrak eta laguntza-premia dutenak zaintzeko zerbitzuak (n=25).


Jarduera horietan parte hartu duten gizarteko taldeei buruzko datuek erakusten digutenez (186 jarduerari buruzko datuak ditugu), 6.079 lagunek parte hartu dute guztira, 3.456 emakumek (%56,9) eta 2.623 gizonezkoek (%43,1). Ondorengo koadroan zehazten da zein taldetakoak ziren horiek.

TALDEAK	emak	gizon	Guztira
DISKRIMINAZIOA JASAN ETA GIZARTETIK BAZTERTZEKO ARRISKUA DUTEN EMAKUMEAK	4		4
HAURRAK	1.338	600	1.938
GAZTEAK	820	677	1.497
GIZARTE OSOA	4.847	1193	6.040
ELKARTEAK ETA ERAKUNDEAK	1.244	83	1.327
EAE-TIK KANPOKO TALDEAK	50	70	120
Guztira	3.456	2.623	6.079

Sentsibilizazio-, informazio- eta jendarteratze-jardueretan parte hartu duten pertsonen %79,7 emakumezkoa zen (n=4.847).

Guztira, 246 jarduera egin dira eta, horietako 154rako (%62,6), 1.820.229,64 € gastatu dituzte erakundeek; gainerakoetan, gastua 0 izan zen, edo ez dute daturik eman. Gastu osoa honela banatu zen administrazioko hiru mailen artean.

Administrazio bakoitzak zenbat gastatu duen gizonen eta emakumeen tratu- eta aukera-berdintasuna sustatzeko sentsibilizazio-jardueretan



Foru-administrazioak jarri du dirurik gehien gizonen eta emakumeen artean tratu- eta aukera-berdintasuna lortzeko sentsibilizazioa eta informazioa areagotzeko jarduerak antolatzen.

Prestakuntza


Era horretako 44 jarduerara egin dira. %70,5 (n=31) IV. Planean zehaztutako 3 ekintza hauen artean banatu da:

- Berdintasunaren alde diharduten elkarte, talde eta eragileek beren esperientziak trukatzeko, elkartzeko eta elkarrekin gogoeta egiteko jardunaldiak antolatzea (n=7).
- Emakumeen eta gizonen zereginak dibertsifikatzeko tailerrak antolatzea, batzuek eta besteek beren gaitasun eta trebeziak lantzeko gizarteak sortutako genero-ereduak gaindituz (n=7).
- Emakumeentzako garapen pertsonaleko ikastaroak, maila guztietan (n=17).

Prestakuntza alorrean egindako 44 jardueretatik, 6 (%13,6) ezaugarri bereziak dituzten taldeetara egokitu dira, eta talde horietako kideen bizitza pertsonala, familia- eta lan- bizitza bateratzeko neurriak aztertu dira.

Ondorengo grafikoan ikusten denez, udal-administrazioako erakundeek antolatu dituzte era horretako jarduerarik gehien (n=34; %77,3).

Administrazio bakoitzak gizon eta emakumeen tratua eta aukeraber dintasuna sustatzeko egindako prestakuntza-jarduerak



Administrazio orokorraren barruan, lau erakunde publikok antolatu dituzte era horretako jarduerak. Honako hauek dira: Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Saila (n=3); Justizia, Lan eta Gizarte Segurantzza Saila (n=1); Osasun Saila (n=1) eta Emakunde (n=1).

Foru-administrazioen artean, Arabakoak hiru jarduerak egin ditu eta Bizkaikoak, bat.

Bestalde, udal-administrazioen kasuan, 19 udal-taldeetan antolatu dituzte era horretako jarduerak, eta jardueren erdia baino gehiago (n=18; %52,9) udal hauek egin dituzte: Mungia (n=6); Bilbo (n=3); Donostia (n=3); Gasteiz (n=3) eta Getxo (n=3).


Jarduerak horietan parte hartu duten gizarte zibileko pertsonen buruzko datuek erakusten digutenez (27 jarduerari buruzko datuak ditugu), 1.648 lagunek parte hartu dute guztira, 1.451 emakumek (%88) eta 197 gizonezkoek (%12). Ondorengo koadroan zehazten da zein taldeetakoak ziren lagun horiek.

TALDEAK	emak	gizon	Guztira
DISKRIMINAZIOA JASAN ETA GIZARTETIK BAZTERTZEKO ARRISKUA DUTEN EMAKUMEAK	30		30
HAURRAK			
GAZTEAK			
GIZARTE OSOA	783	197	980
ELKARTEAK ETA ERAKUNDEAK	618		618
EAE-TIK KANPOKO TALDEAK	20		20
Guztira	1.451	197	1.648

2006an zehar prestakuntza jaso dutenen %47,5 emakumeen talde orokorrekoa zen (n=784), eta %37,5 elkarte edo erakunderen bateko kidea zen.

Guztira, 44 jarduera egin dira; horietako 34rako (%77,3), 307.205,43 € gastatu zuten erakundeek, gainerakoetan gastua 0 izan zen, edo ez dute daturik eman. Gastu osoa honela banatu zen administrazioko hiru mailen artean.

Administrazio-maila bakoitzak zenbat gastatu duen gizonen eta emakumeen tratu- eta aukera-berdintasuna sustatzeko prestakuntza-jardueretan



Udal-administrazioak jarri du dirurik gehien gizonen eta emakumeen artean tratu- eta aukera-berdintasuna lortzeko prestakuntza-jarduerak antolatzen.

Baliabideak eta zerbitzuak

Baliabideak eta zerbitzuak egokitzeko 202 jarduera egin dira. Egindako 13 jardueretatik, %55,9 (n=113) Planean jasotako ekintza hauetan oinarritu da:


- Berdintasunaren alde diharduten emakume-elkarteentzako diru-laguntzen programak (n=26).
- Laguntza ekonomiko eta sozial osagarriak ematea, pobreziaren feminizazio-prozesuen ondorioz baztertuta gelditzeko arriskua duten emakumeen baldintzak hobetzen laguntzeko (n=20).
- Emakumeentzako aholku juridiko eta psikologikoa emateko zerbitzuak (n=11).
- Indarkeria-zikloaren lehen fasean (hitzezko indarkeria eta indarkeria psikologikoa) dauden emakumeentzako arreta-zerbitzuak eta etxetik etxeko laguntza-zerbitzuak sortzea, baliabideak eta laguntza psiko-soziala emanez bigarren fasera (indarkeria fisikoa) pasatzea edo depresioak, norberaren buruaren aurkako indarkeria eta halakoak saihesteko, (n=11). Jabekuntza-eskolak sortzea bultzatzea (n=6).
- Enpresentzat, sindikatuentzat eta enpresa-elkarteentzat laguntza batzuk finkatzea berdintasun-planak egiteko eta erakunde horiek gai horretako adituak kontratatuzko (n=7).
- Orain dauden harrera-etxeetako segurtasun-sistemak hobetzeko laguntza ekonomikoak areagotzea, eta laguntza- eta babes-zerbitzuak emango dituzten langileak kontratatzea (n=6).
- Enplegua sortzeko programak antolatzea eta emakumeak kontratatzea bultzatzea, emakumeak (edozein adinetakoak) kontratatuzko enpresei laguntza ekonomikoak emanez; hala, hainbat kontratu-motatan (emakume gutxi biltzen dituzten lanbide eta kategorietan bereziki) emakumeen parte-hartze kuota handitu nahi da (n=5).
- Erreferentziako sektoreetako lanbide teknikoetan aritzeko gaitzen duten trebakuntza-jardueretan emakumeek parte hartzea bultzatzea, emakume gutxi dauden kategorietan bereziki (n=5).
- Elkarre- mugimenduaren eta berdintasun-politiketan ardura duten pertsonen arteko erlazio- eta komunikazio-mekanismo finkoak egokitzea, elkarren arteko trukea eta ezagutza bideratzeko eta elkarre- mugimendua sendotzeko neurriak eguneratzeko (n=5).

- Prebentzio-neurri berriak edo zabalagoak aztertzea eta bultzatzea (n=4).
- Emakume gutxi dauden sektore eta lanbideetan enpresa txiki eta ertainak bultzatzen dituzten emakumeentzako pizgailuak finkatzea (n=4).
- Administrazio publikoetako gizarte-ekintzarako arloetatik autonomiarik ez dutenak zaintzen diharduten emakume/pertsonentzako arreta eta orientazio-zerbitzu zehatz bat sortzea, honako baliabide hauekin: gogoeta egiteko taldeak, prestakuntza-ekintzak, laguntza psikologikoa, baliabide sozial eta ekonomikoei buruzko orientazioa, laguntza-sistemak eta atsedeneditxo bat hartzeko aukerak (n=4).

Erakunde publikoek 202 jardueren berri eman dute guztira, eta laurdena (n=49; %24,3) lehendik egindako genero-diagnostiko baten ondorioz egin dira.

Baliabideak eta zerbitzuak egokitzeko eta sortzeko egindako jardueretatik, 27 (%13,4) ezaugarri bereziak dituzten taldeetara (etorkinak, ezinduak, garraiorako eta mugikortasun geografikorako laguntza) egokitu dira, eta, lautan, talde horietako kideen bizitza pertsonala, familia- eta lan-bizitza bateratzeko neurriak aztertu dira. Era horretako jardueren erdia inguru udal-administrazioak egin du (n=89; %44,1).

Gizonen eta emakumeen tratu- eta aukera-berdintasuna sustatzeko Administrazio-maila bakoitzak zein jarduera egin dituen baliabideen eta zerbitzuen arloan



Administrazio orokorraren barruan, 8 erakunde publikok antolatu dituzte era horretako jarduerak. Jardueren %83,1 (n=49) Emakundek (n=23), Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Sailak (n=17) eta Justizia, Lan eta Gizarte Segurantza Sailak (n=9) egin dute.

Foru-administrazioen artean, jarduera guztien %46,3 (n=25) Bizkaikoak egin du eta %42,6 (n=23), Arabakoak.

Bestalde, udal-administrazioan, 26 udalek antolatu dituzte era horretako jarduerak eta, bosten artean, jarduera guztien %48,3 antolatu dute (n=43): Zalla (n=13); Irun (n=11); Andoain (n=7); Ermua (n=7) eta Gasteiz (n=5).


Gizonen eta emakumeen arteko aukera- eta tratu-berdintasuna sustatzeko baliabideak jaso dituzten taldeei buruzko datuak zehazten dira ondorengo koadroan (120 jardueri buruzko informazioa jaso dugu). Koadroan jasotako datuen arabera, 7.279 lagunek hartu dute parte gizonen eta emakumeen arteko aukera- eta tratu-berdintasuna sustatzeko baliabide eta zerbitzuetan: 6.464 emakumek (%88,8) eta 815 gizonek (%11,2). Ondorengo koadroan, jarduera horietan parte hartu duten taldeak zehazten dira.

TALDEAK	emak	gizon	Guztira
DISKRIMINAZIOA JASAN ETA GIZARTETIK BAZTERTZEKO ARRISKUA DUTEN EMAKUMEAK	2.653	197	2.850
HAURRAK	378	183	561
GAZTEAK	42	43	85
ADINEKOAK	12		12
GIZARTE OSOA	3.045	319	3.364
ELKARTEAK ETA ERAKUNDEAK	267	73	340
EAE-TIK KANPOKO TALDEAK	67		67
Guztira	6.464	815	7.279

Administrazioek jakitera eman dutenez, zerbitzu eta baliabideak erabili dituztenen artean, diskriminazioa jasateko edo gizartetik baztertuta gelditzeko arriskua duten emakumeek eta gizarteko emakumeek, oro har, erabili dituzte horrelakoak gehien (n=2.653; %36,5 eta n=3.045; %42,8, hurrenez hurren).

Guztira, 202 jarduera egin dira, eta, horietako 120rako (%59,4), 14.890.838,76 € gastatu dituzte erakundeek; gainerakoetan, gastua 0 izan zen, edo ez dute daturik eman. Gastu osoa honela banatu zen administrazioko hiru mailen artean.

Administrazio-maila bakoitzak zenbat gastatu duen gizonen eta emakumeen tratu- eta aukera-berdintasuna sustatzeko zerbitzuekin eta balibideekin zerikusia duten jardueretan



Emandako informazioaren arabera, administrazio orokorrak jarri du genero-ikuspegia administrazioan txertatzen laguntzeko baliabideak eta zerbitzuak sortzeko erabilitako diruaren %93,2.

Arauk sortzea eta egokitzea

38 jarduera egin dira, horietatik %63,2 (n=24) IV. Planeko 4 ekintza hauen barruan:

- Diru-laguntzak emateko deialdiak edo eskaintzak ateratzean genero-ikuspegia eta diru-laguntza jasoko duten erakundeetan berdintasun-politikarik izatea aintzat hartzea (17).
- EAEko administrazioak antolatutako edo diruz lagundutako arte- nahiz literatura-alorreko sariketetarako antolatutako epaimahaietan emakumeen eta gizonen parte-hartzea ordezkatzea, bai eta funtsak erosteko sortzen diren organo guztietan ere (n=3).
- Amatasun- nahiz aitatasun-baimenak edo laguntza behar dutenak zaintzeko baimenak hartzen dituztenei baimena amaitzean aurreko lanpostura itzuli ahal izango dutela ziurtatzea, horrek beren lanbidea garatzea oztopatu gabe (n=2).
- Amatasun- eta aitatasun-bajak eta -baimenak garaiz eta moldez aurreikusi eta ordezkatzea (n=2).

Erakunde publikoek jakinarazi dituzten jarduera guztietatik %26,3tan, (n=10) genero-diagnostikoa egin zen arau berria onartu edo araua aldatu aurretik:


- Emakumeen eta gizonen beharren eta jardunbide egokien diagnostikoa (n=2).
- Udalek diruz lagundutako erakundeen diagnostikoa genero-ikuspegitik egitea (n=1).
- Kirol-munduan emakumeen eta gizonen artean dagoen desoreka bertikala eta horizontala aztertzea (n=5).
- Lan-munduan emakumeek eta gizonen duten egoera aztertzea (n=2)

Jakinarazi dizkiguten jardueretan (n=26), honako hau izan da arauen laguntza jaso duten gizonen, emakumeen eta erakundeen kopurua:

- 15.642 emakume
- 11.697 gizon
- 738 erakunde

Foru-administrazioako erakunde publikoek, batetik, eta administrazio orokorrak eta aldundiek, bestetik, jakinarazi dute aipatutako arauak sortu diren edo /eta egoki bete diren (n=18; %48 eta n=13; %34 hurrenez hurren).

**Gizonen eta emakumeen tratu- eta aukera-berdintasuna
sustatzeko Administrazioaren hiru mailek arauak sortzeko eta
egokitzeko egindako jarduerak**



Administrazio orokorraren barruan, bi erakunde publikok antolatu dituzte era horretako jarduerak. Honako hauek: Justizia, Lan eta Gizarte Segurantza Saila (n=5) eta Lehendakaritza (n=3).

Foru-administrazioaren barruan, Arabako eta Bizkaiko aldundiek antolatu dituzte jarduera gehien-gehienak (n=11 eta 6, hurrenez hurren).

Udal-administrazioaren barruan, Eudelek antolatu ditu arauak sortzea eta egokitzea ekarri duten jarduera gehienak (Bilbo, Arrigorriaga, Ermua, Ondarroa, Trapagaran eta Zalla) (guztiek n=1).

Guztira, 38 jarduera egin dira, baina horietako bakar batek ez dio kostu osagarririk ekarri jarduera egin zuen erakundeari.

Jarraipena

19 jarduera egin dira IV. Planeko 17 ekintza hauen barruan:

- Generoak EAEko administrazio publikoetako kultura-sailek gauzatutako plan, jarduera, programa eta arauetan duen eragina neurtzeko ebaluazioak bultzatzea (n=2).
- Genero-ikuspegia enplegu-zerbitzutan txertatzeko martxan jarritako jardueren eragina neurtzeko jarraipen- eta ebaluazio-adierazleak sortzea, eta halakoei jarraituz hartutako neurriak behar den moduan egokitzea (n=2).
- Gizartean esku hartzeko fase guztietan genero-ikuspegia txertatzean izandako hobekuntzen jarraipena eta ebaluazioa egiteko neurriak hartzea (n=2).
- Emakumeen aurkako indarkeriari erantzuteko protokoloak izandako eragina neurtzea (n=1).
- Hedabide publikoek zabaldutako edukiak ebaluatzea (n=1).
- Emakumeek sektore publikoko ardura-postu gehiago izateko martxan jarritako jardueren eragina neurtzeko jarraipen- eta ebaluazio- adierazleak sortzea, eta halakoei jarraituz hartutako neurriak behar den moduan egokitzea (n=1).
- Enpresak eratzeko eta sendotzeko martxan jarritako jardueren eragina neurtzeko jarraipen- eta ebaluazio-adierazleak sortzea, eta halakoei jarraituz hartutako neurriak behar den moduan egokitzea (n=1).
- Administrazio publikoetan gizonen eta emakumeen lan-baldintzak parekatzeko martxan jarritako jardueren eragina neurtzeko jarraipen- eta ebaluazio-adierazleak sortzea, eta halakoei jarraituz hartutako neurriak behar den moduan egokitzea (n=1).
- Diruz lagundutako prestakuntza-eskaintza eta enplegu-prestakuntzako programa guztietan emakumeen aurkako zuzeneko nahiz zeharkako diskriminaziorik ote dagoen hautemateko jarraipen-mekanismoak sortzea; egoera zuzentzeko neurriak finkatzea eta, behar izanez gero, prestakuntza ematen duen erakundearekin sinatutako hitzarmena bertan behera uztea (n=1).
- Diskriminazioa eragin lezaketan lan-eskaintzak identifikatzeko prozedurak finkatzea eta egoera zuzentzeko neurriak hartzea (n=1).
- Etxeko indarkeria kasuetan arreta ematen duten sailei beharrezko txostenak eskatzea, eta indarkeria lehenbailehen hautemateko egindako jarduerak eta programak zehazteko eskatzea (n=1).


- Etxeko indarkeriari eta sexu-erasoei erantzuteko udal-mailako protokoloak dituzten udalei jarraipena egitea, egon litezkeen hutsunean edo hobetu litezkeen arloak aztertuz (n=1).
- "Etxean tratu txarrak jasaten dituzten emakumeentzako harrera-baliabideak eta etxebizitzak hobetzeko programa"ren barruan jasotako neurriak nola betetzen diren aztertzea (n=1).
- Zesareen eta episiotomien tasak izandako eboluzioa aztertzea, tasa horretan eragina duten aldagaiak identifikatuz eta praktika klinikoa aldatzeko hartu litezkeen neurriak aztertuz (n=1).
- Jaio aurreko diagnostiko-probak egiteko finkatutako epeak betetzen direla ziurtatzea, haurdunaldia kontrolatzeko dauden protokoloak oinarritzat hartuta, eta gurasoei proba horien emaitzaren berri eta dauden aukeren berri ematen zaiela bermatzea (n=1).
- Etxean tratu txarrak jasaten dituzten emakumeentzako osasun-protokoloa eta etxean tratu txarrak eta sexu-erasoak jasan dituzten emakumeentzako arreta hobetzeko erakunde arteko hitzarmena nola betetzen diren neurtzea (n=1).

Datuek erakusten digutenez, egindako jarraipen-jarduerak gehienak (n=12; %63,2) enplegu alorrean eta emakumeen aurkako indarkeriaren alorrean egin dira (n=7 eta n=5, hurrenez hurren).

19 jarraipen-jardueraren berriz eman digute; gehienak (n=12; %63,2) informazioa eman duen erakundeak berak antolatu ditu; beste 4 (%21,1) egiteko, kanpoko aholkularitza baten zerbitzuak kontratatu dira eta gainerako hiruei buruz ez dugu daturik.

Hiru administrazioek antolatu dituzte horrelako jarduerak, baina gehienak administrazio orokorrak (n=12; %63,2).

Gizonen eta emakumeen tratu- eta aukera-berdintasuna sustatzeko Administrazioaren maila bakoitzak jarraipen-mekanismoak sortu eta egokitzeko egindako jarduerak



Administrazio orokorraren barruan, zazpi erakunde publikok antolatu dituzte era horretako jarduerak. Honako hauek dira: Justizia, Lan eta Gizarte Segurantza Saila (n=3); Osasun Saila; Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Saila eta Emakunde (n=2); Lehendakariordetza, Kultura Saila eta Barne Saila (n=1).

Aldundiei dagokienez, Bizkaikoak bakarrik egin ditu jarduerak (n=5; %26,3).

Udal-administrazioen artean, Eudelek eta Gasteizko Udalak bakarrik eman dute antolatutako jardueraren baten berri; jarraipen-jarduera bana egin dituzte.

Guztira, 19 jarduera egin dira eta, horietako baterako, 16.555 € gastatu ditu jarduera egin duen erakundeak.

V. EMAITZEN LABURPENA

Ondoren zehazten diren alderdien inguruan lortu ditugun emaitza adierazgarrienak jaso ditugu atal honetan:

1. Egindako jardueren ezaugarri orokorrak
2. Ardatz estrategikoetan egindako jarduerak aztertzea
3. IV. Planaren gauzatze-maila
4. IV. Plana ezartzeko hartutako neurriak
5. Erakunde publikoek beren politiketan genero-ikuspegia txertatzeko egin dituzten jarduerak
6. Botere publikoek gauzatutako berdintasun-politikak

1. Egindako jardueren ezaugarri nagusiak

– **Ardatz estrategikoak:**

Erakunde publikoek 2006an landutako berdintasun-politiketan, bi ardatz nagusi izan dira nagusi: mainstreaminga, batetik, eta jabekuntza eta parte-hartze politikoa, bestetik. Izan ere, IV. Berdintasun Planaren barruan, 852 jarduera egin dituzte eta horietatik hiru laurden (n=629; %73,8) aipatutako bi ardatz horietan oinarritu dira.

– **Esku-hartze arloak:**

Esku hartzeko 9 arlo identifikatu dira: IV. Plana ezartzeko neurriak, kudeaketa-sistemak, berdintasunerako zerbitzu orokorrak, kultura, hezkuntza, lana, gizarteratzea, osasuna, hirigintza, garraio publikoa eta ingurumena. 9 arlo horietatik, lautan egin dira jarduera gehienak, 2006an egindako jarduera guztien %83,9, hain zuzen. Honako arlo hauetan: Berdintasunerako zerbitzu orokorrak (n=237; % 27,8); gizarteratzea (n=179; % 21); kultura (n=174; % 20,4), eta lana (n=125; % 14,7).

- **IV. Planeko programak**

IV. Planean, sei jarduera-arlotarako (kultura, hezkuntza, lana, gizarteratzea, osasuna eta hirigintza, garraio publikoa eta ingurumena) proposatzen dira planak, eta, horregatik, sei arlo horietan egindako jarduerak bakarrik (n=562) hartu ditugu kontuan. Bildutako datuen arabera, arlo horietan egindako jarduera guztien %69,1ek (n=389) Planean zehaztutako 32 programetatik zazpi gauzatzen zituen (%28,1): emakumeak kulturaren eta artearen eremuan egotea eta parte hartzea; gizartearen eta kulturaren eremu guztietan sexismoa desagerraraztea; enplegu-zerbitzuak emakumeen eta gizonen berdintasunera egokitzea; lana lortzeko aukera berak izatea; emakumeen eta gizonen lan-baldintzak parekatzea; era askotako diskriminazioa jasaten duten eta baztertuta gelditzeko arriskua duten emakumeen baldintzak eta egoera hobetzea eta tratu txarrak edo sexu-erasoak jasan dituzten emakumeentzako arreta hobetzea.

IV. Planeko helburuak

IV. Planean, berdintasunerako zerbitzu orokorren alorrean eta aipatutako sei esku-hartze alorretan bakarrik zehazten dira helburuak, eta, hala, erreferentziazko 799 jarduera ditugu, guztira. Emaitzek erakusten digutenez, egindako jardueren %74,1 IV. Planean zehaztutako 76 helburuetatik 15 (%19,7) lortzeko egin da. Honako helburu hauek dira:

- Erakundea generoaren ikuspegia txertatzeko trebatzea
- Gizarteak berdintasun-politikan duen interes-maila eta inplikazioa areagotzea
- Berdintasuna bultzatzen duten elkarteak ugaritzea eta bultzatzea
- Jarduerak genero-ikuspegian oinarrituta planifikatu eta gauzatzen dituzten kultura-arloak eskaintzen dituzten administrazioen kopurua handitzea
- Emakumeen kultura- eta arte-arloko sorkuntza eta gizartearen ikuspegi ez-sexista bultzatzen duena handitzea
- - Pertsonen duintasuna haien sexuarekin lotzen duten irudi eta edukiak ezabatzea, baita emakumeen aurkako indarkeria justifikatzen, arintzen edo bultzatzen dutenak ere
- Erantzukizunak banatzea eta zaintzearen etika sustatzen dituzten gizartearen eta kulturaren arloko guneak ugaritzea
- Genero-ikuspegia txertatzea enplegu-zerbitzuetan

- Industriako sektore tradizionalak lanpostu teknikoetan gizonen eta emakumeen kopuruen artean dagoen aldea murriztea, emakumeen parte-hartzea handituz
- Administrazio publikoetan eta sektore pribatuko enpresetan emakumeen eta gizonen lan-baldintzak parekatzea, langileen proportzio handienak biltzen dituzten jardueren adarrei lehentasuna emanda
- Administrazio publikoetako gizarte-ekintzako arloetan, diagnostikoetan, planifikazioetan, esku-hartzeetan eta ebaluazioetan genero-ikuspegia txertatzea
- Pobrezia ekonomikoa izanda, baztertua gelditzeko arriskua dutenentzako baliabideak egokitzea, egoera horretan dauden emakumeen baldintzak eta egoera hobetearren
- Droga-mendekotasuna izanda, baztertua gelditzeko arriskua dutenentzako baliabideak egokitzea, egoera horretan dauden emakumeen baldintzak eta egoera hobetearren
- Gero eta maizago indarkeria-zikloa goiz hautematea
- Tratu txarren eta sexu-erasoen biktimei arreta, laguntza eta babes emateko eskaerei koordinazio-, kalitate-, eta eraginkortasun-irizpideen arabera erantzutea, EAEko udalerrietan etxeko tratu txarren eta sexu-erasoen aurrean jarduteko tokiko protokoloak ezarrita

- **Erabilitako esku-hartze tresnak**

Planean jasotako ekintza zehatzak administrazioak eskura dituen esku-hartze tresnen arabera sailkatuta daude. Honako tresna hauek dira: jakintza sortzea; sentsibilizazioa, informazioa eta jendarteratzea; prestakuntza; baliabideak eta zerbitzuak sortzea eta egokitzea; arauak sortzea eta egokitzea, eta jarraipen-mekanismoak sortzea eta egokitzea. Egindako 852 jardueretatik, %60,6tan (n=517), alor hauek landu dira: sentsibilizazioa, informazioa eta jendarteratzea eta baliabideak eta zerbitzuak sortzea eta egokitzea.

- **Talde hartzaileak**

Botere publikoek egindako jardueren hartzaile izan litezkeen 140 taldeetatik, lau izan dira egindako jardueren hartzaile nagusiak: Emakume helduak, oro har (n=230; %27); gizonezko helduak, oro har (n=173; %20,3); emakume-taldeak (n=105; %12,3), eta tratu txarrak edo sexu-erasoak jasandako emakumeak (n=82; 9,6%).

2. Ardatz estrategikoetan egindako jarduerak aztertzea

▪ **MAISTREAMINGA**

Ardatz horretan, 302 jarduera egin dira eta %32,1 (n=97) ardatz horretan jasotako 7 programetan oinarritu da. Gainerako jardueretatik (n=205) %67,9 alor horietako ekintza eta helburuetan jasota dago: IV. Plana gauzatzeko neurriak (n=32; %10,6), kudeaketa-sistemak (n=20; %6,6) eta zerbitzu orokorrak (n=153; %50,7).

Datu horiek erakusten digutenez, 2006an zehar, erakunde publikoek alde zuzeneko jarduerari eman diete lehentasuna. Halako jarduerak oinarritzat jotzen dituzten Planak, berdintasunerako politikak erakundeetan garatzeko.

▪ **JABEKUNTZA**

Ardatz horretan, 327 jarduera egin dira eta %79,5 (n=260) ardatz horretan jasotako 11 programetan oinarritu da. Hala, erakunde publikoek honako programak hauek bultzatu dituzte bereziki emakumeen jabetzaren alorrean: emakumeak kultura- eta arte-arloan egotea eta parte hartzea (n=83; %25,4) eta era askotako diskriminazioa jasan eta baztertua gelditzeko arriskua duten emakumeen baldintzak eta egoera hobetzea (n=70; %21,4).

Aipatutako 11 programetatik kanpoko 68 jarduera gehienek helburua zera izan da: berdintasuna sustatzen lan egiten duten elkarten kopurua handitzea eta elkarte horiek bultzatzea.

▪ **LANA ETA FAMILIA BATERATZEA ETA ERANTZUKIZUNAK BANATZEA**

Ardatz horretan, 46 jarduera egin dira eta, kasuen %91,3tan (n=42), IV. Planean lana eta familia bateratzeko eta erantzukizunak banatzeko proposatutako 8 programetatik zazpi landu dira jarduerak horietan.

2006an, lana eta familia bateratzea eta erantzukizunak banatzea areagotzeko hiru programa bultzatu dira bereziki: lan-bizitza, norberaren bizitza eta familia-bizitza bateratzeko neurriak eta babesa emateko zerbitzuak (n=15; %32,6), erantzukizunak banatzeko kultura eta zaintzearen etika sustatzea (n=14, %30,4) eta autonomia funtzionalik ez dutenak zaintzeko gizarte- eta komunitate-baliabideak izatea (n=8, %17,4).

▪ **EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIA**

Ardatz horretan, 177 jarduera antolatu dira. %92,1ek (n=163) IV. Planeko sei programekin du zerikusia, baina bi programaren inguruan bildu dira gehien-gehienak: tratu txarrak edo sexu-erasoak jasan dituzten emakumeei emandako arreta hobetzea (n=88, %49,7) eta kultura- eta gizarte-alorretan sexismoa desagerraraztea (n=44, %24,9).

3. IV. Plana noraino gauzatu den

Planean, 32 programa eta 76 helburu proposatzen dira, lau ardatz estrategikoetan banatuta: Mainstreaminga, jabetasuna eta parte-hartze sozio-politikoak, lana eta familia bateratzea eta erantzukizunak banatzea eta emakumeen aurkako indarkeria; guztiak ere arlo hauetan: Berdintasunerako zerbitzu orokorrak, kultura, hezkuntza, lana, gizarteratzea, osasuna eta hirigintza, garraio publikoa eta ingurumena.

- **Ardatz estrategikoen arabera**, datuek erakusten digute mainstreaming eta emakumeen aurkako indarkeria ardatzetan lortu dela programarik eta helbururik gehien gauzatzea, Planean proposatutako programa guzti-guztietan egin baitira jarduerak bi ardatz horien barruan, eta Planean zehaztutako helburuen %93,9 eta %100 bete dira, hurrenez hurren; gainera, ardatz horretan, jardueren batez besteko kopururik handiena egin da helburu bakoitzeko (17,9 eta 13,6).
- **Jarduera-eremuen arabera**, betetze-maila desberdina izan da: lau arlotan, programa guztietan egin dituzte jarduerak (kulturan, hezkuntzan, lanean eta gizarteratzean); lan-arloan bakarrik egin dira helburu guztietarako jarduerak, eta kultura-, gizarteratze- eta lan-arloetan egin da Planean jasotako helburu bakoitzeko jarduerarik gehien.

Emaitzek erakusten dutenez, programa eta helburu asko landu dira, baina botere publikoak horiek bultzatzeko jarritako indarra asko aldatu da batetik bestera:

- Aipatutako arloetan, 561 jarduera egin dira guztira, horietatik %69,3 (n=389) IV. Planean zehaztutako 7 programa hauetan: kulturaren eta artearen eremuan emakumeak egotea eta parte hartzea; gizartearen eta kulturaren eremu guztietan sexismoa desagerraraztea; enplegu-zerbitzuak emakumeen eta gizonen berdintasunera egokitzea; lana lortzeko aukera berak izatea; emakumeen eta gizonen lan-baldintzak parekatzea; era askotako diskriminazioa jasan eta baztertuta gelditzeko arriskua duten emakumeen baldintzak eta egoera hobetzea eta tratu txarrak edo sexu-erasoak jasan dituzten emakumeentzako arreta hobetzea.
- IV. Planean zehaztutako helburuen %19,7 (n=15) jardueren %74,1en bidez (n=592) landu da. Jarduera horiek aurreko atalean aipatu ditugu.

4. IV. Plana ezartzeko hartutako neurriak

- **Berdintasun-politikak bultzatu eta koordinatzeko neurriak**

IV. Plana bultzatzeko eta koordinatzeko egin diren 33 jardueretatik, 14k (42,5%) Plana erakundeetako maila guztietan ezartzeko beharrezkotzat jotzen ziren lau egitura motak sortzeko helburua zuten: erakunde barruan egiturak sortzea (%18,2; n=6); administrazio-unitateak sortzea (n=%; %15,5); gizarteak parte hartzeko egiturak ezartzea (n=2; %6,1); erakundeen arteko egiturak sortzea (n=1; %3). Beste 19k zerikusia dute EAEn, aldundietan nahiz udaletan emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna lortzeko dauden egituretatik berdintasunaren jarraipena egiteko eta berdintasuna bultzatzeko dauden egiturekin (n=19; %57,7).

- **Programazioa eta ebaluazioa**

2006an zehar, erakunde publikoek 9 jarduera egin dituzte berdintasunerako planak edo programak sortzeko, eta beste 12, emakumeen eta gizonen arteko berdintasun-politikak ebaluatzeko. Horiek dira IV. Plana kudeatzeko bitarteko nagusiak.

Bestalde, 2006an, EAEko 41 udalek eta mankomunitate batek (lau udalek osatua) zuten emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna lortzeko planen bat martxan. Gehienak Bizkaian zeuden (n=29; %64,4); %28,9 (n=13), Gipuzkoan, eta %3 (n=3), Araban. Halere, oraindik, EAEko hiru lurraldeetan, udalak gehienek ez dute emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna lortzeko planik: Bizkaian %40 (n=82), %36,1 (n=74) Gipuzkoan eta %23,4 (n=48) Araban. Dena den, berdintasun-planik ez duten herriek duten biztanle-kopurua kontuan hartuta, honelako egoera dugu: Bizkaiko biztanleen %20 (n=912.110), Gipuzkoako %40 (n=401.951) eta Arabako %10 (n=254.715).

- **Programaziora edo ebaluaziora zehazki xedatutako dirua**

Era horretako 21 jarduera egin dituzte erakunde publikoek, baina 15ek izandako kostuaren berri jaso dugu bakarrik: zortzi jardueretan, planak prestatu dituzte eta, beste zazpitan, planak ebaluatu dituzte. Guztira, honako kopuru hau gastatu da programazioan eta ebaluazioan: 334,004,48€: Hortik, %35,4 ebaluaziorako erabili da eta %64,6, programaziorako.

5. Genero-ikuspegia erakunde publikoetan txertatzen laguntzeko egindako jarduerak

Ebaluazio honetan jasotako datuen arabera, genero-ikuspegia erakunde publikoetan txertatzen laguntzeko 207 jarduera egin ziren 2006an, guztira, hots, egindako jarduera guztien laurdena inguru (%24,3).

Honako tresna hauek erabili dituzte gehien erakunde publikoek genero-ikuspegia beren jardunean txertatzeko: prestakuntza (n=72; 34,8%); jakintza sortzea (n=52; %25) eta baliabideak eta zerbitzuak sortzea eta egokitzea (n=49; %23,7).

Jakintza sortzea

Jakintzaren alorrean, 52 jarduera egin dira eta gehienak (n=31; %59,6) Planeko bost ekintza jorratzeko egin dira:

- Genero-ikuspegia zenbateraino txertatua dagoen eta sailek politika hori aurrerago txertatzekotan nolako jarrera duten ikusteko diagnostikoa egitea (n=9; %17,3).
- Ikerketak, azterketak, inkestak, ebaluazioak nahiz analisiak egitean, lagin zabalak osatzea, horietan jasotako aldagaiak sexuaren arabera aztertu eta landu ahal izateko (n=8; %15,4).
- Etxeko indarkeriaren eta emakumeen aurkako sexu-erasoen kausak eta eragina aztertzea, halako gertakariak salatze erabakia hartzeko garaian eragina duten faktoreekin batera, era askotako diskriminazioa jasaten duten emakumeak ez salatze erabakia hartzera bultzatzen dituzten arrazoiak bereziki sakonduz (n=7; %13,5).
- Datu-base homogeenak prestatzea eta sortzea, lanerako informazio eta orientazioan, lanerako prestakuntzan eta lan-prestakuntzaren alorrean diharduten erakundeentzat, sexuen arabera banatutako estatistikak bildu ahal izateko (n=4; 7,7%).
- Eskolako eta eskolaz kanpoko kirolean diharduten nesken eta mutilen kopuruaren artean halako aldea egotea eragiten duten faktoreak ikertzea, bereziki batzuen eta besteen parte-hartzea gizartearen genero-eraketak baldintzatzen duen kasuetan (n=3; %5,8).

Administrazio orokorreko erakundeek egin dituzte jakintza-alorreko jarduerak gehien. Halaber, administrazio horrek, udal-administrazioarekin batera, gastatu du diru gehien jarduerak horietan.

Sentsibilizazioa, informazioa eta jendarteratzea

Guztira, 23 jarduerak egin dira alor horretan, eta %60,8 (n=14) IV. Planean jasotako bost ekintza hauen barruan sartzen da:

- Gizarte-alorreko plangintza eta esku-hartzeetan genero-ikuspegia txertatzeko jardunbide onak jasotzen dituzten materialak prestatu, gizarte-ekintzako arloetan banatzeko (n=4).
- Gizonen eta emakumeen arteko berdintasunari eta esku-hartze programetan genero-ikuspegia txertatzeak duen garrantziari buruzko sentsibilizazioa eta informazioa (n=3).
- Hezkuntza alorreko langileak emakumeen aurkako indarkeria hautemateko trebatzea (n=3).
- Emakume etorkinen baldintza, egoera eta beharren gaineko azterketaren emaitzak zabaltzea sektore horrekin eta talde horrekin lan egiten duten teknikarien eta erakundearen artean, haien jardueretan genero-ikuspegia kontuan har dezaten (n=2).

- Osasun-alorreko eragileen artean etxeko tratu txarrei erantzuteko protokoloaren edukia zabaltzea, etengabe hobetzeko neurriekin eta ebaluazioen emaitzekin batera (n=2).

Udal-administrazioak egin ditu sentsibilizazioaren alorrean jardura gehien (n=12; 52,2%).

Guztira, 170 lagunek parte hartu dute jardura horietan (129 emakumek eta 41 gizonen), eta honako talde hauetakoak ziren pertsona horiek: Ikastetxeetako eta hezkuntza-zerbitzueta langileak; Udal-administrazio arduradun politikoak; Udal-administrazio arduradun teknikoak; Administrazio orokorreko arduradun teknikoak eta Emakumeen eta gizonen arteko berdintasunaren alorreko langileak.

Aipatutako jarduerak egiteko gastatutako diruari dagokionez, foru-administrazioak jarri du dirurik gehien.

Prestakuntza

Genero-ikuspegia txertatzen laguntzeko, 72 prestakuntza-jardura egin dira; horietatik %84,7 (n=61) IV. Planean zehaztutako 9 ekintza hauen bidez gauzatu da:

- Emakumeen eta gizonen arteko berdintasunari buruzko eta genero-ikuspegia txertatzeko moduari buruzko prestakuntza (n=24).
- Hezitzaileentzat, gizarte-laguntzaileentzat eta gizonekin lan psiko-soziala egiten duten langileentzat gizontasunei eta indarkeriari buruzko informazio berezia prestatzea, gizon horiek erreferentzia-eredu berriak izan daitezzen (n=11).
- Enplegu-zerbitzueta eta erakunde laguntzaileetako langileak trebatzea, lan-mundura sartzen laguntzeko prozesuko fase guztietan genero-ikuspegia txerta dezaten. Honako fase hauek dira zehazki: informatzea, trebatzea, orientatzea, lan-mundura sartzeko laguntza ematea eta jarraipena egitea, enpresak sustatzea eta nor bere kasa aritzea (n=8).
- Aisialdiko eta gizarte- eta kultura-animazioko zuzendari eta begiraleak trebatzea, beren jarduerak prestatu, dinamizatu nahiz ebaluatzean genero-ikuspegia kontuan har dezaten (n=3).
- Hezkuntza-arloko langileekin trebakuntza-jarduerak egitea, emakumeen aurkako indarkeria hautemateko gaitasunak sor ditzaten (n=3).
- Berritzeguneetako langileei hezkidetzako trebakuntza ematea (n=3).

- Berritzeguneetako irakasleek eta langileek genero-indarkeriari buruzko prestakuntza dutela ziurtatzea (n=3).
- Administrazio publikoetako gizarte-ekintzako arloetan dabilzan teknikarientzako prestakuntza-jarduerak antolatzea, diagnostikoak, plangintzak, esku-hartzeak eta ebaluazioak egitean genero-ikuspegia kontuan har dezaten (n=3).
- Udaletako teknikariei eta, halakorik badago, berdintasunerako eragileei udal-mailako protokoloak egiteko prestakuntza ematea, etxeko indarkeria nahiz sexu-erasoak daudenean zer egin erabakitze (n=3).

Administrazio orokorrak eta udal-administrazioek antolatu dituzte prestakuntza-jarduerarik gehien (n=30; %41,7, hurrenez hurren).

2006an, 4.172 pertsonen jaso zuten prestakuntza, eta horietatik erdia polizia zen (n=2,086). Prestakuntza jaso duten gainerakoak osasun-alorreko, gizarte-zerbitzuetako eta osasun-zerbitzuetako langileak ziren. Administrazio orokorrak jarri du trebakuntza-ekintzak egiteko diru gehien.

Baliabideak eta zerbitzuak

Administrazioari langileei genero-ikuspegia txertatzen laguntzeko baliabideak eta zerbitzuak sortzeko eta egokitzeko, 49 jarduera egin dira, eta horietatik 38 (%77,6) IV. Planeko hiru ekintza hauen barruan sartzen dira:

- Genero-ikuspegia txertatzeko lanak koordinatzea eta bultzatzea, honako politika hauen arduradunei berdintasun-politikak garatzeko aholkuak eta babesa emanez: garapenerako lankidetzak, gazteria, euskara, ingurumena, presidentzia, kontratazioa, zuzenbide-zerbitzuak, ogasuna eta egokitzat jotzen den zeharkako beste edozein plan edo politika (n=25).
- Etxeko tratu txarrei eta sexu-erasoei erantzuteko protokoloak sortzeko gidak eta jarraibideak prestatzea (n=5).
- “Berdintasuna: indarkeriaren aurkako eta berdintasunaren aldeko udalak” eratu eta sendotzea, emakumeen aurkako indarkeriari aurre egiteko jarraibideak homogeenak ezarriz, lana koordinatuz eta biktimei erantzun hobea emanez (n=8).

Era horretako jardueren erdia baino gehiago administrazio orokorrak egin du (n=26; %53), eta herena baino gehiago udal-administrazioek (n=19; %38,8).

Administrazio orokorreko arduradun politikoez eta udal-administrazioetako arduradun teknikoek hartu dute parte gehien ekimen horietan.

Aipatutako jarduerak egiteko egindako gastuari dagokionez, administrazioan genero-ikuspegia txertatzen laguntzeko baliabide eta zerbitzuetan gastatutako diru guztiaren %93,2 administrazio orokorrak jarri du.

Arauk sortzea eta egokitzea

Era horretako 10 jarduera egin dira:

- Planean, beste ekintza bat gomendatzen da: “lan-esparruetan ematen den berdintasunerako prestakuntza homologatzea”. Justizia, Lan eta Gizarte Segurantzza Saileko Enplegu eta Prestakuntza Zuzendaritzak emakumeen eta gizonen berdintasunari buruzko prestakuntza emateko baliabideen katalogoa prestatu du lan-mundura sartzeko zerbitzuetan erabiltzeko.
- 2005ean eta 2006ean argitaratutako aginduen bidez, 155/2002 Dekretua garatzeko laguntzen berri eman zen. Immigrazio alorrean jarduerak egiteko laguntzak arautzen ditu dekretu horrek, eta honako irizpide hau zehazten da egitasmoen laguntzak emateko haztapena egiteko: “genero-ikuspegia txertatzea, gizonen eta emakumeen egoerak, baldintzak eta beharrak aintzakotzat hartuta”.
- EAEko Immigrazioaren II. Planean, genero-ikuspegia txertatu da, emakume etorkinentzat ekintza positiboak proposatuz nahiz ekintza orokorrak emakume etorkinen egoera berezira egokituz.
- Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako ikastetxeekin, Harresiak Apurtuz elkartearekin eta Euskal Eskola Publikoko Gurasoen Konfederazioarekin sinatutako hitzarmenetan, genero-ikuspegia txertatzeko eta hizkera sexistarik ez erabiltzeko baldintza bereziak sartu dira.
- Gauza bera egin da “La Mirada del Sur/Hegoaldearen ikuspuntua” jardunaldiak antolatzeko kanpo-kontratuarekin ere.

- Gizarte Gaietako Zuzendaritzak sinatzen dituen lankidetzak-hitzarmenetan bete beharreko baldintza bati eutsi zaio. Baldintza horrek eskatzen du erakunde laguntzaileek egindako dokumentuetan hizkera sexistarik ez erabiltzea eta lantzen dituzten gaietan emakume eta gizonen egoera, baldintza eta behar bereziak aintzat hartzea.
- Egailani atxikitako "Lanbide"ko langileen hitzarmen kolektiboan, berdintasunerako baldintzak sartu dira.
- "Lanbide"rako langile berriak kontratatzean, generoari buruz duten jakintza aintzakotzat hartu da.
- "Lanbide"ko barne-prestakuntza kudeatzeko prozeduretan, trebakuntza-planak prestatu dira.
- Berdintasun alorrean, laguntza teknikoak emateko enpresak nahiz banakako langileak homologatzeko araudia prestatu da.

Jardueren %90 (n=9) administrazio orokorrak egin ditu eta aipatutako 10 jardueretako bakar batek ere ez die kostu osagarriak eragin jarduera horiek egin dituzten erakundeei.

Jarraipen-mekanismoak sortzea eta egokitzea

Jarraipen-jarduera bakarraren berri eman digute, Eusko Jaurlaritzako Barne Saitetik, hain zuzen ere: sei hilean behin (urtarrilean eta uztailean) eta urtean behin (urtarrilean) etxeko indarkeriarekin eta sexu-askatasunaren aurkako delituekin zerikusia duten lege-urraketak jasan dituzten estatistikak bidali dizkio Emakunderi, eta aurreko aldiko datuekin alderatu dira datuok. Jarduera horrek ez dio inolako gastu osagarriak eragin erakundeari.

6. Emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna lortzeko sektorekako nahiz zeharkako politikak

Erakunde publikoek jakinarazi dutenez, 2006an, 587 jarduera egin dituzte (egindako guztien %68,9) honako hauek lortzeko asmoz: aukera-berdintasuna eta tratu-berdintasuna sustatzeko, emakumeek oro har eta era askotako diskriminazioa jasateko edo gizartetik baztertuta gelditzeko arriskua duten emakumeek bereziki jasandako diskriminazio-egoerez jabetzeko, haien berri emateko eta halakoak ezabatzeko.

Jarduera horien guztien %92,4tan, IV. Planeko lau arlo jorratu dira: berdintasunerako zerbitzu orokorrak, kultura, gizarteratzea eta lana.

Erakunde publikoek IV. Planean zehaztutako 59 helburutan hartu dituzten neurriak, eta horietatik 11ren inguruan antolatu da jarduera guztien %66,1 (n=388):

- Emakumeen arte- eta kultura-sorkuntzak areagotzea, baita gizartearen ikuspegi ez-sexista ematen dutenak ere (n=83; %14,1)
- Berdintasuna bultzatzen duten elkarteak ugaritzea eta bultzatzea (n=61; 10,4%).
- Gizarteak berdintasun-politikan duen interes-maila eta inplikazioa areagotzea (n=50; 8,5%)
- Pertsonen duintasuna haien sexuarekin lotzen duten irudi eta edukiak ezabatzea, baita emakumeen aurkako indarkeria justifikatzen, arintzen edo bultzatzen dutenak ere
 - (n=43; 7,3%)
 - Pobrezia ekonomikoa izanda, bazterketa-arriskua dutenentzako baliabideak egokitzea, egoera horretan dauden emakumeen baldintzak eta egoera hobetearren
 - Indarkeria-zikloa lehenbailehen hautematea (n=21; %10,1)
 - Administrazioak sortutako dokumentazioa berrikustea eta egokitzea, hizkera sexistarik ez erabiltzeko (n=22; 3,7%)
 - Administrazio publikoetan eta sektore pribatuko enpresetan emakumeen eta gizonen lan-baldintzak parekatzea, langile gehienak biltzen dituzten jarduera-adarrei lehentasuna emanda (n=20; 3,4%)
 - Erantzukizunak banatzea eta zaintzearen etika sustatzen dituzten gizartearen eta kulturaren arloko guneak ugaritzea (n=15; 2,6%)
 - Industriako sektore tradizionaletako lanpostu teknikoetan gizonen eta emakumeen kopuruen artean dagoen aldea murriztea, emakumeen parte-hartzea handituz (n=14; 2,4%)
 - Pobrezia ekonomikoa izanda, bazterketa-arriskua dutenentzako baliabideak egokitzea, egoera horretan dauden emakumeen baldintzak eta egoera hobetearren (n=13; 2,2%)

Bestalde, erakunde publikoek IV. Planean zehaztutako 195 ekintza egin dituzte. Horietatik 18 landu dira egindako jardueren erdian (n=306; %52,1):

Tratu- eta aukera-berdintasuna sustatzeko eta emakumeek jasaten dituzten diskriminazio-egoerez jabetu, haien berri eman eta halakoak ezabatzeko neurriak hartzeko erabilitako tresnei dagokienez, honako jarduera hauek landu dira nagusiki: sentsibilizazioa, informazioa eta jendarteratzea (n=246; %41,9) eta baliabideak eta zerbitzuak sortzea eta egokitzea (n=202; %34,4).

Jakintza sortzea

Egindako 38 jardueretatik %44,7 (n=17) Planean jasotako 7 ekintza hauetan oinarritu da:

- Negoziazio kolektiboan berdintasun-politikak txertatzeko egindako esperientziak, gidak eta metodologiak eta enpresetan berdintasuna bultzatzeko erabilitako lan-metodologiak biltzea, zabaltzea eta gizarte-eragileen esku jartzea (n=3)
- Emakumeen aurkako indarkeria-zikloa garaiz prebenitzeko jardunbide egokien inguruan ikertzea eta ikerketa horiek sistematizatzea (n=3)
- Emakumeak beren herrietan segurutzat jotzen ez dituzten leku jakinak identifikatzeko diagnostiko bat egitea (garraio publikoak barne). Horretarako, herriko emakumeek parte hartu behar dute. Neurriak lehenbailehen hartzea eskatzen duten lekuak zehaztu beharko dira (n=3)
- Genero-diagnostiko bat egin behar da emakumeen lan-baldintzetan egon litezkeen diskriminazioak eta desorekak identifikatzeko, finkatutako gutxieneko edukiak betez eta martxan jarritako jardueretan eraginaren jarraipen- eta ebaluazio-adierazleak zehaztuz (n=2)
